
2020-2023 ASTIGARRAGAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO

III. PLANAREN EBALUAZIOA eta EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

2023ko azaroa



Laguntzailea:




AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	2
2. MARKO ARAUTZAILEA.....	3
3. METODOLOGIA ETA PARTE HARTZAILEAK	5
4. PLANAREN DESKRIBAPENA	9
5. PLANAREN EBALUAZIOA	11
5.1. BERDINTASUN SAILAK IZAN DUEN AURREKONTUA	11
5.2. PLANAREN EKINTZAK	12
5.3. PLANAREN HELBURUAK.....	15
6. EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA	18
6.1. BERDINTASUNARI BURUZKO DATU SOZIO- DEMOGRAFIKOAK	18
6.2. GOBERNU ONA: BERDINTASUNA UDAL BARRUAN .	23
6.3. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA.....	26
6.4. GIZARTE ANTOLAKETA BERDINZALEA	28
6.5. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA.....	32
7. AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK.....	35
I. ERANSKINA: EKINTZAZ-EKINTZAKO BALORAZIOAK.....	39

1. SARRERA

Astigarragako Udalak 2009. urtean zehar egin zuen emakume eta gizonen berdintasunari buruzko herri mailako lehen Plana. Herrian emakume eta gizonen artean egon zitezkeen desberdintasunen inguruko diagnostiko txiki bat egin eta honen aurrean zer neurri hartu behar ziren identifikatzea zen helburua.

Honela bada, 2010. urtean jarri zen martxan Astigarragako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana, 2013ra arteko iraunaldiarekin. Garai hartan udalean berdintasunak ez zeukan ez zinegotzi propiorik, ezta teknikari propiorik ere. Orduz geroztik lanean jarraitu dute, 2015-2018 tartean indarrean egon zen Berdintasunerako II. Planaren bitartez. Aurrekari horiekin, 2019an Udalak II. Plana ebaluatzeari eta herriko egoera aztertzeari ekin zion. Hau amaitzean Plan berria diseinatzeari, 2020-2023 indarraldia izan duen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana, hain zuzen.



Plan honen helburu nagusia Astigarragako Udalak berdintasunean aurrerapausoak ematen jarraitzea izan da, baita lanean jarraitu ahal izateko oinarriak ezartzea ere.

EAEko emakume eta gizonen berdintasunerako VII. Planaren ardatzei jarraituz egin zen III. Plana, udalerriko errealitatera egokituz, eta 14 helburu eta 101 ekintzaz osaturiko dokumentua diseinatu zen.

Helburu horien artean nagusienak udal barrura begira genero ikuspegia udal jardueran txertatzen jarraitzeko baldintzak sortzea eta, herrira begira, herriko emakumeekin eta mugimendu feministarekin saretzea izan ziren. Aipatuta, Astigarragan Emakumeon Etxe bat sortzeko proiektua abiatzea ere aurreikusi zuen Planak.

Zentzu honetan, Emakumeon Etxea irekitzea izan da Astigarragako Berdintasun arloak azken urteetan izan duen erronka garrantzitsuenetako bat. Kudeaketa eredua kogestioa da, Astigarragako Emakumeon Etxea elkartarekin duen hitzarmenaren bidez asteen zenbait orduz dinamizatzaille bat ere baduelarik.

Horrez gain, aipagarria da Planak iraun duen lau urteetan hiru berdintasun teknikari egon direla. Zorionez, egun plaza esleitua dago eta, aurrera begira, egonkortasun gehiago egotea espero da. Berdintasunaz gain beste arlo batzuen ardura ere badu teknikariak, egun, Berdintasun Politiketaren jardunaren % 50 ematen du.

Baina dena ez da urre, eta Planaren garapenak hutsune handiak ere izan ditu, ez baitira urte errazak izan; COVID19an eta administrazio publikoko lanpostuen egonkortasun prozesuek eragina izan baitute, besteak beste.

Egindako bidea luzea bada ere asko geratzen da egiteko. Ekin diezaiozun lanari.

2. MARKO ARAUTZAILEA

1/2023 legegintzako dekretuak, martxoaren 16koa, Emakumeon eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak jasotzen duen moduan, Emakumearen Aurkako Bereizkeria era guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioak (NBEren Biltzar Nagusiak 1979ko abenduan onetsi zuen, eta Espainiar Estatuak 1948ko otsailean berretsi) emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa aldarrikatu zuen. Konbentzio horren 2. artikuluan, konpromiso hau hartu zuten NBEko kideek: *“printzipio hori legeen bidez edo beste bitarteko egoki batzuek erabiliz benetan betearazten dela bermatzea”*.



Bestalde, Amsterdamgo Ituna 1999ko maiatzaren 1ean indarrean sartu zenetik, emakumeen eta gizonen berdintasuna Europar Batasunaren funtsezko printzipio bihurtu da. Gaur egun, 2009ko abenduaren 1ean indarrean sartu zen **Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak** azpimarratzen du emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburua estatu kideen politika eta ekintza guztietan txertatu behar dela (8. artikulua).

Espainiar Estatuko **3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrari buruzkoak**, bere 14. artikuluan zerrendatzen ditu botere publikoek berdintasun politketan jarduteko irizpide orokorrak. Gainera, 15. artikuluan azpimarratzen du Estatuko botere publiko guztiek, zeharkakotasunaren estrategiaren baitan, beren jarduera eta eremu guztietan genero ikuspegia txertatzeko betebeharra dutela.

Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.1. artikuluan, berriz, berdintasunerako eskubidea eta sexuaren ziozko bereizkeriarik eza aldarrikatzen da. Horrez gainera, Estatutuaren 9.2.d artikuluan zera adierazten da, herri-aginteez pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintzak sustatzeko eta hori lortzeko oztipoak ezabatzeko betebeharra dutela berdintasun hori benetan eta modu eraginkorrean gauza dadin.

Era berean, **otsailaren 5eko 2/1988 Legean, Emakumearen Euskal Erakundea sortarazteari buruzkoan**, jasotzen du lehen mailako gaia dela emakumeekin bereizkeriaz jokatzeko era guztiak benetan ezabatzeko betebeharra. Horrez gain, emakumeek gure Erkidegoko alor guztietan esku-hartu ahal izateko beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituela euskal administrazioak.

3. METODOLOGIA ETA PARTE HARTZAILEAK

Prozesua metodologikoki bideratzeko IAP (Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea) izenaz ezagutzen den metodologian oinarritu gara. Xedea da talde-hausnarketa eta talde-harremana bideratzeko prozesuak zabaltzea eta prozesu horien bidez, estrategia komunak eraikitzea errealitatea aldatzeko.

Horregatik, garrantzia eman diogu, batetik, talde hausnarketak sustatzeari, eta bestetik, etorkizunari begira erronkak elkarrekin identifikatzeari.

Bestetik, ebaluazioa egiteko prozesuak **7 hilabete iraun du**, 2023ko maiatzetik azaroa bitarte.

Prozesua gidatzeko, udalaren eta Elhuyarren artean **Talde Eragilea** sortu da. Bertan, udalaren ordezkari gisa *Emakume eta gizonen berdintasunerako* zinegotziak eta teknikariak parte hartu dute, eta uneoro Elhuyarreko kide batekin aritu gara lanean. Talde Eragileak erraztu digun dokumentazioa ezinbestekoa izan da III. Planaren betetze-maila neurtzeko eta ebaluazioaren alde kuantitatiboa egiteko.

Ebaluazioaren metodologia zehatzari dagokionez hiru fasetan banatu dugu ebaluaketa.

a) Orain arte egindako lanaren balorazioa egitea:

Aurreko Planak izan duen garapena zein izan den jakiteko datu kuantitatiboak jaso ditugu.



Horrez gain, garrantzitsua iruditu zaigu ekintzen betetze-mailaz gain, helburuen betetze-maila kualitatiboki ebaluatzea.


Nolakotasuna aztertu dugu elkarrizketa sakonen bidez, Planaren garapenean egon diren zailtasunak eta aukerak ere identifikatzeko.

b) Astigarragako zenbait datu kuantitatibotan arreta jartzea:

Astigarragari buruzko zenbait datu kuantitatibo jaso ditugu txostenean. Batetik, datu demografikoei lotutakoak, adierazgarria baita izan duen populazioaren hazkundera. Bestetik, herriko aberastasuna sexuaren arabera aztertu dugu. Enplegua eta lan merkatuaren inguruko datu pare batetan arreta jarri dugu, esaterako, langabezia tasan, emakumeen eta gizonen arteko aldea ohikoa baina altuagoa delako.

Bestetik, udal barruan sexuen ordezkariak parekidea ote den begiratu dugu. Azkenik, indarkeria matxistari buruzko datuen bat ere jaso dugu.

Helburua da Astigarragako datu estatistikoaren bidez sexu-bereizkeriak identifikatzea.



c) Informatzaile klabeen bidez Astigarragak emakume eta gizonen berdintasunean dauzkan erronka nagusiak identifikatzea:

Aurrez aipatu bezala, informatzaile klabeekin egin ditugu gogoeta-saioak Astigarragan berdintasun gaietan egindako bidea ezagutu eta aurrera begirako erronka nagusiak identifikatzeko. Bederatzi gogoeta-saio egin dira, gehienak euskaraz, batzuk gazteleraz, emakumeekin bakarrik, emakume eta gizonekin, herritar antolatuekin eta norbanakoekin, baita udal langileekin ere.

Txostenean jaso diren ekarpen asko eta asko talde bat baino gehiagotan atera dira.

Azkenik, txostena ulergarria eta irakurterraza izateko saiakera egin dugu, ahalik eta pertsona gehienentzat eskuragarria izan dadin.

Bidea garrantzitsua delako, ebaluatzen genuen bitartean, emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko **sareak indartu** eta **prestakuntzan** sakondu dugu.

Informazio iturri zuzenak, **bederatzi gogoeta-guneetatik** etorri dira, 3 lan saio eta 6 elkarrizketetatik. Hauexek izan dira gogoeta taldeak (ikus parte-hartze datuak hurrengo orrialdean):


1. Berdintasun politiken ardura politiko eta teknikoa izan duten pertsonen elkarrizketa sakona.
2. Berdintasun Mahai Txikiko eragileei elkarrizketa: Gaztelekuko koordinatzaileak, Xaguxar aisialdi elkarte eta Astigarragako Gazte Asanblada.
3. Herriko begirada historikoa duen Harituz emakume taldearekin eta Galtzaur jubilatuen elkartearekin elkarrizketa.
4. Emakumeon Etxea elkarteko partaideekin elkarrizketa.
5. Zaurgarritasun egoeran dauden emakumeekin lan egiten duten profesionalen elkarrizketa.
6. Udal arloetako arduradunen teknikoekin elkarrizketa.
7. Udal idazkariarekin elkarrizketa sakona.
8. Udal-gobernuarekin kontraste saioa.
9. Herriko eragileekin eta herritarrekin kontraste saio irekia.

Azkenik, emaitza Udaleko Batzorde Informatzailean aurkeztu da.



EBALUAZIOAN PARTE HARTU DUTEN ERAGILEAK

Guztira 40 pertsonak, 9 udal arlok eta 5 elkarteak hartu dute parte prozesuan.



Ebaluazio prozesuan udaleko arlo hauek hartu dute parte:

- Gazteri/Kirola
- Euskara/Hezkuntza
- Obrak eta Zerbitzuak
- Hirigintza/urbanizazioa
- Parte hartzea/Berdintasuna
- Tokiko Garapena
- Kontu-hartzailletza
- Udal-idazkaritza
- Gizarte zerbitzuak

Parte hartu duten elkarteak:

- Harituz
- Galtzaur
- Emakumeon Etxea
- Xaguxar aisialdi taldea
- Gazte Asanblada

ASTIGARRAGAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN EBALUAZIOA eta EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Emakume eta gizonen parte hartzea arloka banatuta:

ELKARRIZKETA SAKONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
2022ko zinegotzia eta berdintasun teknikaria	2	0	2
Udal idazkaria	1	0	1
GUZTIRA	3 (% 100)	0	3 (% 100)

TALDE-ELKARRIZKETAK	EMAKUMEAK	GIZONEZKOAK	GUZTIRA
BERDINTASUN MAHAI TXIKIKO HAINBAT KIDERI	5	0	5
HARITUZ ETA GALTZAUR ELKARTEEI	4	2	6
EMAKUMEON ETXEKO PARTAIDEEI	2	0	2
EGOERA ZAURGARRIAN DAUDEN EMAKUMEEKIN LAN EGITEN DUTENEKIN	3	0	3
UDAL ARLOETAKO ARDURADUNEKIN	5	2	7
UDAL-GOBERNUAREKIN	4	4	8
HERRITARREKIN	6	0	6
GUZTIRA	29 (% 78,4)	8 (% 21,6)	37 (% 100)

4. PLANAREN DESKRIBAPENA

Astigarragako emakume eta gizonen berdintasunerako III. Planak 2020-2023 bitarteko iraupena zuen; 4 urteko indarraldia, beraz.

Prozesu parte-hartzaile baten bidez diseinatu zen, eta II. Berdintasun Planaren ebaluazioa kontuan izanik osatu zen.

Astigarragako emakume eta gizonen Berdintasunerako III. Planak 4 ardatz izan ditu, diseinatu zen garaian EAEko VII. Berdintasun planak zituen ardatzekin koherentzia osoa mantenduz. Hauek ziren 4 ardatzak:

1. Gobernu ona
2. Emakumeen ahalduntzea
3. Gizarte antolaketa berdinzalea
4. Indarkeria matxistarik gabeko herria


Lau ardatzetan banatuta, guztira 14 helburu eta 101 ekintza jaso ditu planak. Honela banatu dira ekintzak ardatz eta helburu bakoitzeko.

1. GOBERNU ONA	
1.1. Berdintasunerako politiken kudeaketa, planifikazioa eta koordinazioa hobetzea	8 ekintza
1.2. Genero-ikuspegia zeharlerrotasunez txertatzea udalaren lan-jardunean	12 ekintza
1.3. Berdintasun politikak aurrera eramateko dauden baliabideak eta azpiegiturak hobetzea eta indartzea	6 ekintza
1.4. Udalak berdintasunarekiko hartu duen konpromisoa herritarrei ikusaraztea	8 ekintza
1.5. Udala erakunde berdinzalea izateko pausoak ematea	2 ekintza
	36 ekintza
2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	
2.1. Emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa sustatzea	6 ekintza
2.2. Emakumeen ahalduntze soziala eta politikoa sustatzea eremu ezberdinetan	9 ekintza
2.3. Emakumeek egindako ekarpenak aitortzea eta hauen ikusgarritasuna sustatzea	11 ekintza
	26 ekintza
3. GIZARTE ANTOLAKETA BERDINZALEA	
3.1. Emakumeen langabezia-tasa murriztea eta enplegu duina sustatzea	5 ekintza

3.2. Zaintza erdigunean jarriko duen gizarte erantzunkidea sustatzea	6 ekintza
3.3. Herritarrak berdintasunean hezten jarraitzea, hezkidetzaren balioak adin guztietako biztanleriaren artean zabalduz	11 ekintza
	22 ekintza
4. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA	
4.1. Indarkeria matxistaren aurrean Udalak jarrera irmoa izatea	3 ekintza
4.2. Astigarragan indarkeria matxista kasuak prebenitzea eta sentsibilizazioa lantzea	9 ekintza
4.3 Indarkeria matxista jasaten duten emakumeei ematen zaien arreta hobetzea	5 ekintza
	17 ekintza

I. eranskinean jaso da planeko ekintza guztien zerrenda.

Planaren kudeaketarako hainbat egitura zeuden aurreikusita:




Planaren jarraipena eta balorazioa egiteko, III. Planak bazuen metodologia proposamen bat ezarria. Aipatutako kudeaketarako markoez gain, urteroko ebaluazio txostena egitea aurreikusten zuen.

Bertan ekintzen betetze-maila neurtzea zen helburua, hiru mailatan sailkatuz ekintzen garapena: *egina, erdizka egina eta egin gabe*. Helburuen betetze-maila neurtzeko hainbat inpaktu-adierazle proposatu ziren dokumentuan.

5. PLANAREN EBALUAZIOA

5.1. BERDINTASUN SAILAK IZAN DUEN AURREKONTUA

Plana garatu den urteetan zehar, honakoa izan da Berdintasun Sailaren bidez kudeatu den aurrekontua.



Berdintasun Sailaren aurrekontua urtez urte igo dela ikus daiteke honako grafikoak. Udal osoaren aurrekontuarekin alderatuz gero, ikus daiteke berdintasunaren aurrekontua nabarmen igo dela azken urteotan, 2020an %1,59 zelarrik eta 2023an % 1,70.

AURREKONTUA	2020	2021	2022	2023
Berdintasunerako aurrekontua	148.145	156.582	183.761	188.752
Udal aurrekontu osoa	9.291.408	9.121.834	10.439.177	11.073.605
%	%1,59	%1,72	%1,76	%1,70

Hala ere, aipatu beharra dago gastu, horiez gain, Astigarragako Udalak bestelako gastu estrategikoa egin duela Berdintasun Politikei dagokionez, zenbaki hauetan ikusten ez diren inbertsioak. Izan ere, Emakumeon Etxearen lokala Berdintasun Politiketarako esleitu eta bertako obrak eta eraikinaren mantenuak ez dira aurrekontu honetan islatzen.

Beraz, aurrekontu igoera, hasierako grafiakoaren bidez irudikatzen dena baina altuagoa da errealitatean.

5.2. PLANAREN EKINTZAK


Planaren jarraipena egiteko egiturak ez dira ia elkartu Planak iraun duen bitartean. Horrez gain, Planaren jarraipen sistema ere ez da bete. Horrela, ez dago urteko memoriarik, ez eta adierazleen jarraipenik. Arrazoi nagusia izan da Berdintasun Sailean langilerik gabe egon direla denbora luzaz, eta lau urtetan 3 teknikari ezberdin aritu direla lanean. Gaur egun, zorionez, lanpostua egonkortu da eta lanaldia handitu egin da.

Planari jarraipena sistema bete ez arren, udal-langileen berdintasunerako zinegotziaren eta berdintasun teknikariaren laguntzarekin Planaren betetze-maila nolakoa izan den aztertu ahal izan dugu.

Lehenik, Planak jasotzen zituen ekintzak, oro har bete diren edo ez jaso dira beheko grafikoetan, Planaren garapen mailaren ikuspegi orokorra izan dezagun. Ondoren, ekintza bakoitza nola garatu den edo zergatik ez den garatu jaso dugu taula batean.

Azkenik, Planaren 14 helburuen betetze-maila baloratu da modu kualitatiboan, elkarrizketen bidez.


Ikus ditzagun, bada, ekintzen betetze-mailaren datuak:



Goian ikus dezakegu Planak jasoak zituen 101 ekintzetatik 41 eraman direla aurrera. Beste 19 ekintza geratu dira erdi bidean, eta azkenik, 41 ekintza geratu dira garatu gabe. Ia ehun ekintza izanik, betetze-maila ehunekoetan antzekoa da, hau da, Planaren % 41a bete da gutxi gora behera eta % 41 geratu da garatu gabe.

II. Planarekin alderatuta, betetze-maila jaitsi egin dela ikus dezakegu, II. Plana % 51,54ean bete baitzen.

Ardatz bakoitzaren betetze-maila ikus daiteke beheko taulan, eta ondoren betetze-mailaren ehunekoak.



ARDATZA	Helburuak	Egin da	Erdizka	Ez da egin	Ardatzaren Betetze-maila
Gobernu ona	5	9	8	19	% 25
Emakumeen ahalduntzea	3	17	4	5	% 65
Gizarte-antolaketa berdinzalea	3	6	4	12	% 27
Indarkeria matxistarik gabeko herria	3	9	3	5	% 53
GUZTIRA	14	41	19	41	% 41

Gehien garatu den ardatza **Emakumeen Ahalduntzeari** burukoa izan da, aurreikusita zituen 26 ekintzetatik 17 garatu baitira, hau da, % 65a. Emakumeon Etxea sortzeak eta Berdintasunerako Mahai txikia sortzeak bultzada handia eman dio Planari arlo horretan. Emakumeon Etxea ekipamendua da adibide garbietako bat, 200 bazkide eta ohiko 40 erabiltzaitetik gora izateaz gain, herrian berdintasunaren aldeko mugimendua aktibatu eta emakumeak ahalduntzeko ekimen garrantzitsua izan baita.

Indarkeria matxistarik gabeko herrian ere garatu dira ekintzak ugari. Aurreikusita zeuden 17 ekintzetatik 9 egin dira, % 53a alegia. Kasu honetan, indarkeria matxista kasuen sistematizazioan Berdintasun arloak hartu duen lana azpimarratu beharko litzateke, baita herriko eragile feministekin elkarlanean indarkeria matxistaren prebentzioan egin den lana ere. Kasuen jarraipenerako protokoloa ere egin da, udal barruko agenteen artean izan bada ere.

Gizarte-antolamendu berdinzalean aurreikusita zeuden 22 ekintzetatik 6 garatu dira soilik. % 27a bakarrik. Hala ere, ekintza esanguratsuak izan dira. Nabaria da Gaztelekutik egin diren ekimenak, baita Kirola eta Jarduera osasuntsuaren ataletik egin direnak ere. Bestetik, zaintzaren arloan sakontzeko egindako diagnostikoek oinarriak jarri dituzte etorkizunean gaia gehiago lantzeko. Hauen artean Beterri-Buruntzaldea mankomunitatetik egin diren lanak aipagarriak dira, bi emakume langaberen kontratazioa kasu.

Gutxien garatu den ardatza **Gobernu onarena** izan da, % 25a soilik eraman baita aurrera. Atal horretan garatu diren ekintzak, gehien bat, udal teknikariek jada beren lan egiteko moduan beren gain hartu ohi dituztenak dira. Esaterako berdintasuna sustatzeko klausulak txertatzea dirulaguntzen ordenantzan. Komunikazioari dagokionez, asko geratzen da egiteko. Udaleko web orrian Berdintasunak presentzia nabarmenagoa izan beharko luke baita Emakumeon Etxeak ere. Webgunean jasota dauden udal ikerketen artean ere ez da berdintasunarekin lotutako ikerketarik, horiek Berdintasun atalean daude jasota eta. III. Planean aurreikusita zeuden koordinazio egiturek ez dute funtzionatu, batez ere Berdintasun Sail iraunkorrik ere ez delako egon koordinazio horren lidergoa eramateko.

Hala ere, ardatz honetan ekintza esanguratsuak ere egon dira: Berdintasun Arloan azken urteetan eman den baliabideen gorakada, esaterako. Berdintasun teknikariaren jarduna igo izana ere azpimarratu beharra dago. Garatu den beste ekintza garrantzitsua, dirulaguntzetako udal-ordenantzan berdintasun irizpideen puntuazioa % 10 izatearen betebeharra da.

I. Eranskinean txertatu dugu ekintza bakoitzaren betetze-maila eta bakoitzari buruzko xehetasunak.

5.3. PLANAREN HELBURUAK

Aurrez azaldu bezala, Planaren jarraipen sistema ez da bete, eta helburuen betetze-mailak neurtzeko adierazleak ez dira jaso. Horregatik, helburuen betetze-mailaren neurketa zehatza egitea ezinezkoa izan da.

Gauzak horrela, Astigarragako III. Planaren helburuei lotutako ekintza-gako edo esanguratsuenen garapena aztertu da elkarrizketen bidez, helburuen gainean eragina izan dezakeela aurreikusi baita.

Oro har, Plana garatu duen gobernuko hainbat ahotsek adierazi dute ekintzen betetze-maila oso altua ez izan arren, **helburu garrantzitsu ugari bete direla Plan honetan zehar**, hala nola: *Berdintasun politikak kudeatzeko baliabide eta azpiegiturak indartzea (1.3)*, *Emakumeen ahalduzeari lotutakoak bigarren ardatzeko hiru helburuak, zaintza erdigunean jartzeari buruzkoa (3.2) eta Herritarrek sentsibilizatzeari buruzkoa (3.3)* helburuak, edota *indarkeria matxistaren aurrean Udalak jarrera irmoa izateari (4.1)* buruzkoak.

1. Ardatza: GOBERNU ONA	
HELBURUAK	Ekintza-gakoen garapena
1. Berdintasunerako politiken kudeaketa, planifikazioa eta koordinazioa hobetzea	<ul style="list-style-type: none"> - Ez dira urteko memoriak egin. Udal barruko egiturak ez dira elkartu, eta ez dago lantalde interdepartamentalik. - Baina Plana onartu zen, eta gizarte zerbitzuekin harreman ona egon da, baita elkarlana ere. Berdintasunari buruzko udalaz gaindiko sareetan parte hartu da normalean, eta proiektu puntualak egin izan dira hirigintzarekin, adibidez, puntu kritikoen inguruan.
2. Genero-ikuspegia zeharlerrotasunez txertatzea udalaren lan-jardunean	<ul style="list-style-type: none"> - Dirulaguntzen arau orokorrean, lehia bidezko dirulaguntzetan % 10arekin puntuatzen da berdintasun irizpideak izatea, baita euskara ere. - Oro har, ez da mainstreaming estrategia landu.
3. Berdintasun politikak aurrera eramateko dauden baliabideak eta azpiegiturak hobetzea eta indartzea	<ul style="list-style-type: none"> - Baliabideak handitu dira; berdintasun teknikariaren jarduna %25 izatetik %50 izatera pasa da. Dirulaguntzak daude berdintasunaren aldeko elkartegintzarentzat. Berdintasuna sustatzeko ikerketa beka bat sortu zen eta oinarriak 2 aldiz atera dira. - Emakumeon Etxea, azpiegitura bezala, ireki egin da.
4. Udalak berdintasunarekiko hartu duen konpromisoa herritarrei ikusaraztea	<ul style="list-style-type: none"> - Udalaren web orrian ez da oso argi ikusten zer egiten den Berdintasunean. - Berdintasunaren alde herri mailan egiten diren kontuak bateratzeko gaitasunik ez du izan momentuz Berdintasun Sailak. - Berdintasunaren inguruko Udal adierazpen instituzionalak onartu dira udalbatzan, eta aho batez, martxoaren 8koak edo azaroaren 25ekoak kasu.

<p>5. Udala erakunde berdinzalea izateko pausoak ematea</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Udal barruko erakundearen kultura ez da landu genero ikuspegitik. Ez da bateragarritasuna sustatzeko neurririk hartu, edo jazarpen sexista lantzeko neurririk hartu.
<p>2. Ardatza: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA</p>	
<p>1. Emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Askok landu da ildo hau eta funtzionatu du. Batez ere Emakumeon Etxea irekitzea aurrerapauso handia izan da. Baliabideak jarri dira aurrera ateratzeko udaletik: Lokala, hitzarmena... Funtzionatzen du, jarduera guztiak doakoak direlako. - Berdintasun mahai txikian nerabe eta gazteekin lan egiten duten eragileak egoteak asko lagundu du lan ildo hau garatzen. - DBHko ikasleekin bi programa sortu dira, jarduera puntualak eskaintzen dira genero-identitateen eta harreman afektibo-sexualen inguruan, bai eta elkarbizitzaren inguruan ere, nahiz eta momentuz Martutenen kokatua egon eta ez Astigarragan. - Diskriminazio anizkoitza pairatzen duten emakumeekin oraindik ez da harremanik egin eta kosta egiten da beren beharrak zeintzuk diren ezagutzea. - Emakumeon Etxea herritarrengana ez da guztiz iritsi oraindik. Egitasmoa gehiago zabaltzeko beharra dago.
<p>2. Emakumeen ahalduntze soziala eta politikoa sustatzea eremu ezberdinetan</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Berdintasunerako mahai txikiak oso ondo funtzionatu du emakume antolatuen arteko sareak egiteko, elkar ezagutzeko, agendak eta egitasmoak konpartitzeko. Gai zerrendak eta aktak daude, fundamentua dago.
<p>3. Emakumeen egindako ekarpenak aitortzea eta hauen ikusgarritasuna sustatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ikerketa Bekek asko lagundu dute Astigarragako emakumeen memoria berreskuratzen. - Ohorezko hiru herritar daude izendatuta eta bat emakumea da. - Horrez gain, kirolek eta kulturatik ere antolatu dira emakumeen ekarpenak ezagutarazteko ekimenak. - Kale izendegiarekin lanketa ere egin da. Plana baten proiektua landu zen emakumeen plana izateko helburuarekin. Horrez gain, bi kaleri jarri zaizkio emakumeen izenak. Hirigintzako sailarekin harreman oso ona dago.


3. Ardatza: GIZARTE ANTOLAKETA BERDINZALEA	
1. Emakumeen langabezia-tasa murriztea eta enplegu duina sustatzea	<ul style="list-style-type: none"> - Beterri Buruntzaldeatik bi pertsona kontratatzeko aukera eman zitzaion Astigarragari, 6 hilabeterako. Astigarragak erabaki zuen brigadetarako izatea 2 postu horiek, eta Emakumeak izan behar zirela nahi eta nahi ez. Aukeran, langabetuak. - Herriko komertzioetan emakumeen egoera zein zen jakiteko ikerketa bat ere egin zen. - Herri baratzetan emakumeei lehentasuna ez zaie ematen.
2. Zaintza erdigunean jarriko duen gizarte erantzunkidea sustatzea	<ul style="list-style-type: none"> - Zaintzari buruzko hitzalditxo batzuk eman dira gurasoentzako. - Buruntzaldea mailan diagnostikoa egin zen Zaintzen ingurukoa, baita herri mailako beste ikerketa bat ere. - Amatasunak lantzen dituzten emakumeak biltzen dira Emakumeon Etxean. - Ekintza planik ez da egin zaintzaren diagnostikoaren ostean.
3. Herritarrak berdintasunean hezten jarraitzea, hezkidetzaren balioak biztanleriaren artean zabalduz	<ul style="list-style-type: none"> - Sexu-aholkularitzak ondo funtzionatu du. - Gaztelekutik hezkidetzeta landu da. - Kirol sailetik emakume erreferenteak ekartzen saiatu dira.
4. Ardatza: INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA	
1. Indarkeria matxistaren aurrean Udalak jarrera irmoa izatea	<ul style="list-style-type: none"> - Asko hobetu da salaketaren alderdia. Lehen Donostiara joateko deialdia egiten zen, eta orain, herrian bertan egiten dira salaketak.
2. Astigarragan indarkeria matxista kasuak prebenitzea eta sensibilizazioa lantzea	<ul style="list-style-type: none"> - Datuak biltzen dira. Oraindik findu behar bada ere. Gizarte zerbitzuekin elkarlanean aritzeko joera dago. - Udaltzainekin orain arte ezin izan da lanik egin hainbat arrazoiengatik. Baina jarrera ona dute, eta udaltzainen erdia berritu egin da. - Tabernek, jai giroan, sagardogileekin, ez da lortu lanketarik egitea, saiakerak egon diren arren.
3. Arreta hobetzea	<ul style="list-style-type: none"> - Ez da lanketa ez eta hausnarketa berezirik egin.

6. EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

6.1. BERDINTASUNARI BURUZKO DATU SOZIO-DEMOGRAFIKOAK

A. Demografia

Astigarragako Udalerriak 7.288 biztanle zituen 2022 urtean. Horietatik, 3.545 emakumeak ziren eta 3.647 gizonak. Datu esanguratsua da, ordea, 15 urtetan populazioa ia bikoiztu zuen herria dela, horrek dakartzan ondorioekin.



Eremu geografikoa

Gipuzkoa


2007

Biztanleria	4.332	
Adina	-	-
Jaiotze-urtea	-	-
Emakumezkoak	2.113	% 48,8
Gizonezkoak	2.219	% 51,2
Sexu ratioa (E/G)	0,95	
Erreferentzia data	2007/01/01	
Datu mota	Behaturiko datuak	

Adin-tarteak

Adina	Unitateetan	%			Sexu ratioa
		Guzt	Ema	Giz	
≥ 65	484	11,2	58,3	41,7	1,40
20-64	2.941	67,9	48,0	52,0	0,92
≤ 19	907	20,9	46,2	53,8	0,86
Guztira	4.332	100,0	48,8	51,2	0,95

Iturria: EUSTAT, 2023.



Eremu geografikoa

Gipuzkoa

2022

Biztanleria	7.288	
Adina	-	-
Jaiotze-urtea	-	-
Emakumezkoak	3.599	% 49,4
Gizonezkoak	3.689	% 50,6
Sexu ratioa (E/G)	0,98	
Erreferentzia data	2022/01/01	
Datu mota	Behaturiko datuak	


Adin-tarteak

Adina	Unitateetan	%			Sexu ratioa
		Guzt	Ema	Giz	
≥ 65	906	12,4	51,1	48,9	1,04
20-64	4.615	63,3	49,1	50,9	0,96
≤ 19	1.767	24,3	49,2	50,8	0,97
Guztira	7.288	100,0	49,4	50,6	0,98

Iturria: EUSTAT, 2023.

Bapateko hazkunde honek ekarritako ondorioen artean dago zerbitzu publiko nahikoa ez egotea. Esaterako, hezkuntza formaleko bigarren ziklorik ez izatea, edota Osakidetzako ginekologo eta pediatria nahikoak ez izatea.

Adinari erreparatuz gero, esanguratsua da Astigarragak duen populazio gaztea. Gipuzkoako adin piramidea eta Astigarragako jarri ditugu konparatu ahal izateko.




Iturria: EUSTAT, 2023.

65 urteko populazioa Gipuzkoan, % 23,2koa bada, Astigarragako % 12,40koa. 20 urtetik beherako populazioa Gipuzkoan % 19,3a izanik, Astigarragako % 24,20koa da.

Astigarragan eman zen hirigintza zabalpenak eragin du klase ertain altuko familia berri asko etortzea kanpotik herrira bizitzera. Etorritakoen tasaz ari garela, biztanle berrien profila familia euskaldunarena da. Euskalduntze tasa asko igo da azken urteotan migrazio hori dela eta.

≡ 2 urteko eta gehiagoko biztanleria euskara-maila orokorraren arabera



Iturria: Eustat. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak EUSTAT, 2023.

Era berean, atzerrian jaiotako populazioaren portzentaia baxuagoa da Gipuzkoakoarekin alderatuta. Astigarragan % 7,9koa da, Gipuzkoan, aldiz, % 8,5koa.

Astigarragako biztanle hauek, gehien bat, latinoamerikatik etorriak dira. Ikuspegi Inmigrazioaren Euskal Behatokiaren arabera, Donostialdeko migrazioaren % 57a dator latinoamerikatik (Euskadin proportzioa % 52koa da).

araberakoa parekatuz baitoa. 2020an, Emakundeko Zifrak txostenaren arabera, emakumeen langabezia tasa % 10,8koa izan zen eta gizonena % 10,5koa.


Astigarragan ordea, gizonen langabezia 4,9 puntuko izan zen 2021 urtean, emakumeen langabeziaren erdia (emakumeena 8,9 puntukoa).

Bestetik, ekonomia formalean ostalaritzak, taberna eta sagardotegiek presentzia handia dute herrian. Enpresen poligono garrantzitsua dago ere herriaren erdian. Hala ere, Astigarragako enplegu gehienak herritik kanpo kokatzen dira, bestelako hiriguneetan.

C. Ordezkaritzak sexuaren arabera

Astigarrako Udalan bi emakume egon dira alkate karguan; hirugarrena ordezkapen baten ondorioaz izan zen eta epe labur batean zehar.

Udalbatzako ordezkaritzari dagokionez, hauteskunde zerrendak parekideak diren etik parekidetasun proportzioa errespetatzen da.



Iturria: Astigarragako Udala, 2019.

Iturria: Astigarragako Udala, 2023.

Oro har, pisu gehien duten karguetan, sektore maskulinizatuak ordezkatzen duten sailetan gizonak egon dira karguan, sektore feminizatuetan, ordea, emakumeak.

Udal barruko mahai teknikoetan ordezkaritza parekatua eman ohi da, udal-idazkaria eta kontu-hartzailea emakumezkoak direlako.

Udal gobernua parekidea da, baina zenbait udal batzorde ez. Beheko taulan jaso ditugu legealdi berrirako antolatu diren udal-batzorde informatzaileak, eta bertan ikusten da sexuen arteko parekidetasuna bermatzeko saiaketa egiten den arren, oraindik batzorde guztietan ez dela lortu.

Nabarmenenak, Obra eta Zerbitzuetako batzordeak eta Jasangarritasun energetikorako batzordeak dira, emakume bat berak ere ez duelako parte hartzen batzorde horietan.

Hala ere, Batzordeen erdietan emakumeak dira buru eta beste erdian gizonak.

	ASTIGARRAGAKO UDALEKO INFORMAZIO-BATZORDEAK, 2023-2026 legealdian					
	KIDEAK GUZTIRA				BATZORDEBURUA	
	Emakumeak		Gizonak		Emakumeak	Gizonak
	Z	%	Z	%		
Hirigintza, etxebizitza, ingurugiroa eta mugikortasuna	2	40	3	60	0	1
Obrak eta zerbitzuak	0	0	5	100	0	1
Ogasuna eta ondarea	2	40	3	60	0	1
Gizarte zerbitzuak eta adineko pertsonak	3	60	2	40	1	0
Kirolak, gardentasuna eta partehartzea	2	40	3	60	1	0
Berdintasuna eta lankidetzak	4	80	1	20	1	0
Kudeaketa, berrikuntza eta Pertsonala	2	40	3	60	0	1
Kultura eta jaiak	3	60	2	40	1	0
Euskara eta hizkuntza	3	60	2	40	1	0
Tokiko Garapena	3	60	2	40	0	1
Partaidetza	2	40	3	60	1	0
Herri segurtasuna eta trafikoa	1	20	4	80	0	1
Jasangarritasun energetikorako batzordea	0	0	5	100	0	1
Guztira	27		38		6 (%50)	6 (%50)

Iturria: Elhuyar.

Azken hauetan aldaketak eman daitezken konpromiso politikoa udalbatza osoak hartu beharko luke, alderdi politiko bakoitzak erabakitzen baitu nor izendatu batzordeetan.

6.2. GOBERNU ONA: BERDINTASUNA UDAL BARRUAN



Udalaren barne lana jasotzen du atal honek. Egoeraren azterketa egiteko, 1/2023 Legean, emakume eta gizonen berdintasunari eta emakumeen kontrako indarkeria matxistari buruzkoan ezartzen diren genero ikuspegia udal jardueran txertatzeko prozedurak nola lantzen diren aztertu dugu. Prozedura hauek III. Tituluan daude jasota, hainbat artikuluetan.

Honela, zortzi ataletan banatu dugu analisia, udal kudeaketan genero ikuspegia txertatzeko legeak ezartzen dituen prozeduretan eginaz sailkapena.

Erabilitako informazio-iturriak bereziki udal idazkariarekin elkarrizketa sakona eta udal teknikariek lan-saioa izan dira. Zortzi atal horiei buruz honako galdera egin diegu: “zer egin dugu orain arte gai honekiko?”. Elkarrizketa eta lan-saio horietan esandako hainbat aipamen jaso ditugu jarraian argigarriagoa izan dadin.

1. Informazio Bilketa

Berdintasun Legearen 17. artikuluan ezartzen da udalaren ohiko jardueretan genero ikuspegia eraginkortasunez txertatu ahal izateko datu estatistikoetan, azterlanetan eta datu bilketetan sexu aldagaia sistematikoki txertatu beharra dagoelako, emakume eta gizonen arteko bereizkeriak identifikatu ahal izateko.

- *Orokorrean datuak sexuaren arabera jasotzen dira. Egun, gehienetan 3 aldagai erabiltzen dira Astigarragako udalean; emakumea, gizona eta ez-bitarra. Baina ez da sistematikoa. Gainera, normalean memorieta ez dira datuak sexuaren arabera desagregatuak azaltzen ez eta interpretatzen ere.*
- *Diagnostiko espezifiko batzuk egin dira, gehienak Berdintasun Saitetik. Emakume zaintzaileen egoeraren inguruan (Emagin, 2022), Merkataritza txikian emakumeen papera aztertzeko (Aztiker, 2021).*

2. Udal langile eta ordezkarien trebakuntza berdintasun gaietan

Berdintasun Legearen 18.artikuluan ezartzen da botere publikoek ziurtatu behar dutela administrazioko langile guztiek jaso behar dutela beren lanpostuaren araberako trebakuntza mailakatua. Horrez gain, jarduera publikoa dutenentzat sentsibilizazio jarduerak egiteko betebeharra du administrazioak.

- *Ikastaro bakarria egin da III. Planak iraun duen bitartean. Hizkuntza ez sexistari buruzkoa izan zen, goiz bakarrekoa. Baina ez zen oso erabilgarria izan.*
- *Udal-idazkariak Berdinbidean programan hartu zuen parte, Gipuzkoako Foru Aldundiko programan, eta ikuspegia zabaltzeko balio izan zion.*

3. Komunikazio ez sexista

Berdintasun Legean 19.4 artikuluan ezartzen den moduan, administrazio publikoak, bere bidez edota hirugarrenen bidez (hau da berak azpikontrataturakoak ere) hizkuntza inklusibo eta ez sexista erabili behar dute. Horrez gain, estereotipatu gabeko irudiak erabili behar dira.

- *Dokumentua eta ereduak sortu ziren, baina gerora ez da ezagutarazi edo erabili. Plegu administratiboetan egin ohi da, eta plegu teknikoetan, arloen arabera.*
- *Webgunea, sare-sozialak, Kronikan, aldizkarian, karteletan, kontuan hartzen da normalean, baina intuitiboki, hau da egiten duen teknikariaren arabera.*
- *Zaila da udal-jardueraren bidez sortzen den komunikazio guztiari jarraipena egitea.*

4. Genero eraginaren aurretzako ebaluaketa

Generoaren araberako inpaktua aurretiaz ebaluatzea derrigorrezkoa da hainbat egintza administratiboetan. Esaterako, udal-ordenantzetan, hirigintza proiektuetan edota lanpostu publikoen deialdietan.

- *Momentuz ez da halakorik egiten hasi Astigarragako Udala. Lehenengo, prozedura hau nola egin ikasi eta Astigarragako Udalaren errealitatera egokitu beharko litzateke.*
- *Hiri Antolamendureko Planeamendu Orokorra egiteko pleguetan, enpresa lizitatzailerei eskatu zitzaion berak egin zezala Genero eraginaren aurretzako ebaluaketa txostena.*

5. Hautapen prozesuak eta epaimahaiak

Enplegu publikoari eta udal-administrazioaren antolamenduari dagokionez, lege eskakizunak asko aldatu dira urte gutxitan. Enplegu publikorako eskaintza eta sustapen probatuko oinarrietan genero ikuspegia aintzat hartzeko klausulak ezarri behar dira, epaimahai parekideak, neurriak hartu haurdunaldiak, edoskitzeak eta bestelako egoerek prozesuak baldintza ez ditzaten eta abar. Horrez gain, udal administrazioek beren enplegatuekiko lan harremanaren eta erakundearen kulturaren inguruko barne berdintasun planak izan behar dituzte, bai eta jazarpen sexistari aurre egiteko protokoloak ere. Gainera, azken bi dokumentu hauek erregistro ofizialean sartu behar dituzte¹.

- *Lanpostuen balorazioa egin da duela gutxi.*
- *Hautaketa prozesuetako epaimahaiak ere parekideak dira.*
- *Udal langileen zerrenda oso feminizatua dago. Udaleko ardura postu nagusietan emakumeak daude.*
- *Ez dago giza baliabideen arduradun espezifikorik.*

1 <https://www.boe.es/boe/dias/2023/07/24/pdfs/BOE-A-2023-16950.pdf>

- *Enplegu deialdien pleguetan klausulak sartzen dira: epaimahai parekideak, gaitegietan berdintasuna sartzea edota desenpate kasuetarako klausulak.*
- *Udaltzainen deialdian emakume bat sartu da (udaltzainburu ordea).*
- *Laneko jazarpen sexistaren gaia ez da landu, ez eta kontziliaziorako neurri espezifikorik.*

6. Kontratazio publikoan berdintasunerako klausulak ezartzea (22. Artikuluan ezartzen den betebeharra)

9/2017 Sektore Publikoko Kontratazio Legean eta Berdintasun Legearen 22. artikuluan jasotzen den moduan, administrazio publikoa kontratazio arduratsua egiteko betebeharra du, horretarako klausula sozialak eta ingurumenezkoak ezarriz.

- *Urteko kontratu guztien kontrola badago udalean. Oro har. Gehienak obra eta Zerbitzuetakoak dira. 500 kontratu txiki egiten dira eta 30 lizitazio inguru urtero, gutxi gora behera.*
- *Kontratazio mahaia parekidea da.*
- *Klausula sozialei eta berdintasunezkoei dagokionez, zerbait egiten da. Arlo batzuk gehiago besteek baino. Asko dago hobetzeko. Gehien bat, balorazio irizpideak zeintzuk izan behar diren ezartzen eta klausulen jarraipenari dagokionez.*

7. Dirulaguntzetan berdintasunerako klausulak ezartzea

Berdintasun Legearen 23. Artikuluan ezartzen da udalaren dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasuna sustatzeko klausulak txertatu behar direla.

- *Dirulaguntzen araudi orokorrean Berdintasuna balorazio irizpideetan % 10arekin dago jaso.*

8. Berdintasun udal-politikak koordinaziorako egiturak

Berdintasun politikak udal osoaren ardura dira. Berdintasun sailen ardura udal-mailako berdintasun politikak planifikatu eta koordinatzea dira, besteak beste. Horregatik, garrantzi berezia du udal mailako koordinazioak. Ebaluazio prozesuan agerian geratu da udal-mailan berdintasun politikak koordinatzeko beharra.

- *Arlo askok ez zuten Berdintasun Plana ezagutzen, ez eta haien arloei zegozkien ekintzak ere.*
- *Berdintasun Politikak ez dira koordinatzen, ez dago egiturarik.*
- *Arloek, sailaren arabera, harremana dute berdintasun teknikariarekin ekimen puntualetarako.*

6.3. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA



Egindako elkarrizketetan emakumeen egoera hobetu, emakumeak ahaldundu, bizi-baldintzak hobetu eta elkarren artean saretzearen garrantzia nabarmendu da emakume eta gizonen berdintasunera iristeko estrategia moduan.

Horrela jasotzen du Nazio Batuen Erakundeak ere GJH2030 estrategian ere: gizarte justuago batera iristeko estrategien artean dago “genero-berdintasuna eta emakume eta neskatilen ahalduntzea” (GJH2030, 5 Helburu Estrategikoa).

Emakumeen ahalduntzea emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko ezinbesteko estrategia da, ezin baikara helmugara iritsi abiapuntu ezberdinetatik abiatzen bagara. Feminismoak aldarrikatutako estrategia hau administrazio publikoak bere egin du gure testuinguruan ere, 1/2023 Berdintasunerako legearen testu bateratuan, 3. artikuluko printzipioetan jasotzen baita emakumeen ahalduntzea.

Emakumeon Etxea: emakumeak jabetzea, ahalduntzea eta emakumeak saretzea

- **Ahalduntze Eskola eskaintzen da** Emakumeon Etxean, zenbait ikastaro, tailer, hitzaldi eta ekintza antolatzen dira. Gainera, talde iraunkorrak ere sortu dira, esate baterako ama talde bat.
- **Emakume etxeak herriko emakume asko saretu** ditu. 200 bazkide inguru ditu egun. Eskaintza handia egiten du. Azpimarragarria da Astigarragaren tamainako herri batek halako ekipamendu berritzaile bat izatea.
- Astigarragan **ez da egon mugimendu feminista aktibo bat**. Horrek, herri mailan erreferente falta ekarri du. Hala ondorioztatu zuen Astigarragako Berdintasunari buruzko lehen ikerketa bekak ere. **Mugimendu feminista sustatzeko** emakumeak saretu eta elkartegintza sustatzea ezinbestekoa izango da **berdintasunaren aldeko herritarrak aktibatze**ko.
- Duela urte batzuetatik herri mailako mobilizazioak egiten hasi dira. **2018 eta 2019ko greba feministek asko aktibatu dute herria**. Aktibazio sozialak dakartzan onura sozialen beste adibide bat da honakoa.
- **Emakumeen arteko sare gutxi daude iraunkorrak direnak**. Emakume heldu asko batzen ditu Harituz elkarteak, baina kolektibo zehatz baten beharrei erantzuten die gehien bat: emakume helduak, asko erdaldunak eta bazkideei begirako ekimenak sustatuz.
- Emakumeon Etxea ekipamendu publikoa da eta eragile feministen bidez kudeatua izateko apustua egin zuen Udalak. Herri mailako eragile zabalagoa izateko

bokazioa du ekipamenduak, baina oso berria da eta momentuz ez du lortu herri osora iristea. **Herri mailan lanketa egiteko beharra dago Emakumeon Etxea zer den eta zertarako den ulertu dadin.**

- **Emakume Etxearen egungo kokapena** Etxearen helburua sustatzeko oztopo izan daitekeela jaso da elkarrizketetan. Lokal hori Gaztelekua zelarik, jada, gazteak kexatu egiten ziren taberna artean eta herriaren erdian zegoela, denen begiradapean. Emakume batzuk intimitatea eta babesaren behar dute ekipamendura hurbiltzeko. **Harrerarako espazio beharra dago, espazioa diafanoegia da.** Ordutegia ere ez da oso zabala.
- **Emakume gazteen eragile propiorik ez izan arren**, gazte mugimendua oso feminizatua dago eta ekimen ugari egin dira indarkeria matxistaren aurkakoak. Adibidez, festetan etxeratzeko brigadak, beldurra lekuz aldatzeko ekimenak, eraildako emakumeen alde eta indarkeria matxistaren kontrako konzentrazioak.

Emakume ezberdinen errealitateak ikusgarri egitea

- Astigarraga herriko biztanleriaren *renta percapita* Gipuzkoako batz bestekoa baina altuagoa izan arren, eta maila sozioekonomiko oneko familia gazte asko bizi arren Astigarragan, badira zailtasun maila handiekin bizi diren kolektiboak ere. **Kolektibo hauek zaintzeko, lehenik non dauden eta zein behar dituzten ikusi beharra dago.**
- Badira emakume helduak eta alargunak **bakardade handian** bizi direnak. Astigarragak landa eremu zabala du, biztanleria baserrietan zabaldua. Bertan emakume helduez gain, zaintzaile gisa gau eta egun lanean daudenak badaude.
- Herrian badira **babes sarerik gabeko** ama bakarrak, eta ez dago baliabide gehiegirik adin txikikoen zaintza kolektibizatzeke edo bide publikoetatik laguntzeko. Oro har, **haurrei edo adin-txikikoei begirako eguneroko eskaintza publikorik ez dago, hau da, ludotekarik.** Haurrei begirako programa soilik zaugarri gisa Gizarte Zerbitzuetatik detektatutako haurrei eskaintzen zaie.
- Gaztelekua, aldiz, badago, eta lanketa puntualak egin ohi dira berdintasuna lantzeko nerabeen artean. Gainera, **Gaztelekua eta Xaguxar aisialdi taldea Berdintasun sailarekin koordinatua** dago Berdintasunerako mahai txikian parte hartzen duelako. Oso positiboki baloratzen da elkarlan hau.
- **Hizkuntza eta kode kultural ezberdinak dituzten emakumeak ere badira Astigarragan.** Herriko bizitzan parte hartzeko erraztasunak jarri behar zaizkie, adibidez, talde babestuak eta espezifikoak eskainiz.

6.4. GIZARTE ANTOLAKETA BERDINZALEA



Emakume eta gizonen berdintasuna denon ardurada. Gaur egun ez dago zalantzarik gizon eta emakumeen inplikazioa behar dela berdintasuna lortzeko, bai eta administrazio publikoena, sektore ekonomikoena eta herritarrena ere.

Arreta emakume eta gizonengan jartzez gain, identitateen aniztasunaz ere hitz egiteko garaia da, bai eta sexu-genero sistemaren ondorioak pairatzen dituzten beste kolektiboena ere.

Horregatik, atal honetan jaso ditugu herri mailan detektatu diren beharrak berdintasunari dagozkionak.

Bestalde, Astigarragak gero eta antz handiagoa du lotarako hiri batekin. Sentipen hori elkarrizketa batean baino gehiagotan agertu da, gizarte-kohesioa ikuspegi orokorrago batetik lantzeko beharra azpimarratuz.

Herri kohesioa berdintasunetik

- **Astigarra herria asko hazi da** azken urtetan. Azken 15 urtetan bikoiztu du bere biztanleria. Horren ondorioa nabarmena da biztanle askok oraindik ez dutela lotura nabarmenik bere komunitatearekin Astigarragan bertan. **Herri komunitatea lantzeko beharra dago herria osatzen duten kolektibo anitzekin**, zer esanik ez emakumeekin, parte hartzen duten kolektibo guztietan.
- **Kulturak, Kirolak, Gazteria Politikek eta jaiek potentzialitate handia** dute herri kohesioa sustatzeko, **baina guzti hauek genero ikuspegitik egin behar dira**, bestela, genero rol eta estereotipoak indartuko ditugu nahi gabe.
- Kultura arloan **nabarmenak dira emakumeen ekarpenak ezagutarazteko saiakerak**. Kirolean ere egin dira ekimen bereziak emakumeen presentzia handitu eta genero rol eta estereotipoak deseraikitzeke.
- **Jaietan, rol eta estereotipoak gehiago nabarmentzen dira**. Sukaldaritza lehiaketetan, edota dantza kontuetan rol eta estereotipo banaketa ere asko nabarmentzen da. Jaien egitarauaren diseinuan sektore gehiagok parte hartzeko bilera espezifikoak egitea proposatu da.
- **Kohesio soziala sustatzeko ezinbesteko da eragile sozialei beren garrantzia aitortzea**. Elkartegintza sustatzea herri kohesioa eta aktibazioa lantzeko ezinbestekoa izango da, besteak beste, berdintasunaren aldeko herri ekimenak eta elkarte feministak edota emakumeenak.
- **Espazio publikoaren erabilera** ere arreta jarri beharko da herri kohesioa eta berdintasuna baldin bada helburua.

Berdintasunaren beharraz ohartzea

- **Astigarragan ondo bizi garenaren irudipena** nabarmena da. Egia da etxe berri asko egin direla eta zerbitzu berri asko ireki direla. Oro har, klase sozial eroso baten isla da Astigarraga. Baina horrek **ez du esan nahi herritar guztiek beren beharrak asetuak dauzkatenik, ez eta bereizkeria estrukturalak ez daudenik.**
- **Berdintasunera iritsi garenaren itsutasuna dago** herrian: “*espejismo de la igualdad*” deitzen zaiona. Urte gutxitan aurrera pauso handiak eman direnez, berdintasunera iritsi garenaren irudipena dagoela dirudi, jada hobeto bizi garela. **Baina datu errealek hori ez dela horrela diote** (Errenta pertsonalean dagoen genero-arrakala edo langabezia sexuaren arabera ikusita, indarkeria matxistaren datuak ikusita, espazio publikoaren erabilera sexuaren arabera begiratzuz gero, besteak beste).
- Behar mota asko gurutzatzen dira ordea, **emakumeak ez direlako homogeneoak eta sexu-genero bereizkeriez gain badaudelako bestelako bereizkeriak ere.**
- Horregatik, berdintasun plan berriak arreta jarri beharko du **ikuspegi intergenerazionalan**, hau da, adin mota ezberdinetan genero berdintasuna sustatzean, bai eta, oro har, **interseksionalitatean ere**, bestelako bereizkerietan arreta jartzeko: jatorri aniztasunean, pobrezian, familien aniztasunean, desgaitasun eta aniztasun funtzionalei begiratzean eta abar.

Zerbitzu publikoak genero ikuspegiarekin garatzea

- **Herritar eskubideak eta zerbitzuak eskuratzeko ezinbestekoa da erroldatua egotea.** Astigarragan bizi diren biztanle guztiek ez dute erroldatuak izateko aukerarik, izan Etxebizitza arazoa dagoelako, poligonoko lokal batean bizi direlako edota bestelako arazo administratiboengatik.
- **Hirigintza genero ikuspegitik** lantzeko ekimen ugari egin dira. 2016an Mapa morea izeneko prozesu bat egin zen eta 2019an hirigintzako ordenantza aldatu eta HAPOan eragiteko prozesua egin zen. Horrez gain, Emakumeon Plaza egin da eta bi kaleri emakume izena jarri zaie. Baina erronka handiak ditu herriak oraindik: herriaren erdia maldan egotea, eraikuntza eta zerbitzu berri asko martxan jarri behar izatea urte gutxitan herriak izan duen hazkundeagatik, eraberritu beharreko guneak eta abar.
- **Zerbitzu publikoen irisgarritasuna**, bestela ere arazoa da zenbait kolektiborentzat, Udaletxea, Kultur etxe zaharra edo Gizarte Zerbitzuak aldapa eta eskilara askoren ostean daudelako. Adinekoen gehiengoa emakumeak direlako, Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileen gehiengoa emakumeak direlako, edota gurbildun aukietan eta zaintza beharrak dauzkaten kargu egin ohi direlako oztopo honek gehiago eragiten die emakumeei gizonei baino. Bestetik, Gizarte Zerbitzuetan ez dago itxaron gelarik.
- Hala ere, udaleko pertsonak, izan ordezkari politikoak nahiz teknikoak gertu sumatzen dituzte diagnostikoan parte hartu dutenek. **Administrazioaren eta**

herritarren arteko gertutasuna eta harremanak asko errazten du politika publikoen garapen egokia. Zentzu horretan, aipagarria da duela urte gutxi sortutako herri partaidetzarako udal atala.

- **Garraio publikoaren** kompetentzia Udalarena ez izan arren, garrantzi handia du herritarrentzat, zer esanik ez emakumeentzat, gehien bat landa eremuan bizi direnentzat, adinekoentzat, gazteentzat, maila sozioekonomiko baxukoentzat eta abar. Donostiatik gertu egon arren, konexioak ez dira oso onak Gipuzkoako beste herri eta guneeekin, eta zerbitzuak azken urteetan okerrera egin du (puntualitatea, maiztasuna...).
- Arlo honetan **kritika ugari egin zaizkio hainbat elkarrizketa taldeetan Poligonoko autobus geltokiari.** Nerabeek eta emakume askok diote beldurra eta deserosotasuna bizi dutela poligonoko geltokitik pasatzean, batez ere inguruan sortzen den alkohol eta droga giroan parte hartzen duten pertsonengandik jarrera intimidatzaile eta sexistak bizi izan dituztelako.

Herri garapena zaintzatik bultzatzea

- **Hezkuntzari dagokionez,** badago Hartzaindegi publikoa, Lehen Hezkuntza eta guraso elkarteak. Bertan, irakasleen gehiengoa eta guraso elkarteko gehiengoa emakumeak diren arren, erabaki guneeetan, gizonak dira gehiengoa. Herriarentzat **izugarritzko garrantzia izango du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zentroa herrian egiteak.**
 - o **Egoera zaurgarrian dauden familiak,** kasu askotan eskolaren bidez detektatzen dira, eta DBH herrian ez izateak zaildu egiten du detekzioa.
 - o **Hezkidetzaren programa iraunkorrik ez dago,** baina esperientzia edo programa interesgarriak egin dira. **Tailer intergenerazionalak** egin ziren duela urte batzuk, herriko pertsona helduen eta eskolako ikasleen artean.
 - o Badira genero ikuspegia edo hezkidetzaren lantzeko gogoak duten irakasleak, curriculumeko edukietan emakumeen presentzia bultzatzen dutenak eta bestelako ekimenak sustatzen dituztenak, baina ez da apustu estrukturala. Aipatutako hezkuntza zentro guztietan eta udal mailan haur, nerabe eta gazteentzat antolatzen diren ekimenetan **berdintasuna era estruktural eta koordinatuan lantzeko Hezkidetzaren programa** bat sortzea interesgarria litzateke.
- **Osasunaren ikuspegitik,** Osasun zentro berria ere eraikitzeko dago. Herrian emaginik ez dago, nahiz eta EAEko jaiotze tasen bikoitza izan eta ia 8.000 biztanleko herria izan. Familia medikuen eta pediatren falta ere egon da azken urteetan.
- **Zaintzaren ikuspegitik,** Beterri Buruntzaldea eskualde mailan zaintzen diagnostikoa egin zen, eta bertatik hainbat erronka identifikatu ziren. Udalak herriko zaintza beharrak eta egoera aztertzeko berariazko ikerketa bat egin zuen. Interesgarria litzateke ikerketa

horien diagnostikoetan oinarrituta ekintza plan bat diseinatzea. Zaintzaileentzako ikastaro pare bat egin dira Emakumeon Etxean, baina ez dute jarraipenik eduki, oso orokorrak zirelako eta parte hartzaileen profila oso ezberdina zelako.

- **Sektore ekonomiko garrantzitsua**_da ere ostalaritza Astigarragan. Bertan lan egiten dute emakume askok eta herriaren ekonomian eragin handia du. **Sektore honetatik berdintasuna nola sustatu daitekeen aztertzea** ezinbestekoa litzateke.

6.5. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA



Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren gaia jorratu dugu diagnostikoa osatzeko elkarrizketetan. Diagnostikoan zehar emakumeek bizi dituzten arrisku pertzepzioak atera dira, baina baita indarkeria matxistari aurre egiteko eta herri mailan nahiz udaletik hartutako neurriak ere.

Emakumeen aurkako indarkeria matxista emakumeen aurka historikoki eta modu sistematikoan egiten den indarkeria da eta giza eskubideen urraketa da. Modu askotan

eman daiteke, indarkeria psikologikoa, fisikoa, sexuala nahiz ekonomikoa izan daiteke. Zoritzarrez, bizitzako eremu ezberdinetan bizi dugu indarkeria matxista; lanean, kalean, aisialdian, familian eta bikote barruan, esaterako.

Nazio Batuen Erakundeak 1993an 48/104 ebazpenaren bidez horrela aitortu zuen emakumeen aurkako indarkeria: *Adierazpen honen ondorioetarako, "emakumearen aurkako indarkeria" da emakumeari kalte edo sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikoa eragiten dion edo ekar diezaiokeen indarkeria, emakume izate hutsagatik egina, historikoki emakumeek pairatu duten gutxiespen eta menpekotasunaren ondorioz egina, helburu gisa emakumeen menpekotasuna betikotzea duena.*

EAEko Berdintasun Legeak horrela jasotzen du: *Emakume izateagatik emakumeen kontra baliatzen den indarkeria oro hartzen du, neska txikien, neska nerabeen eta emakume transexualen kontra egiten dena barne, edo neurritz kanpo eragiten dien indarkeria, bai eremu publikoan, bai pribatuan. (...) Halaber, emakumeen aurkako indarkeria matxistatzat jotzen da biktimak babesten dituzten pertsonen aurka egiten den indarkeria, bai eta haien hurbileko ingurunearen edo ingurune afektiboaren aurka egiten dena ere, bereziki seme-alaben edo beste senide batzuen aurkako, emakumea atsekabetzeko borondatez.*

Horrez gain, gaur egun indarkeria matxistaz hitz egiten da era zabalagoan, emakumez gain, sexu-genero sistema jarraitzen ez duten pertsonen aurkako indarkeria ere barne bilduz, esaterako eraso homofobo, lesbofobo eta trasfoboak. Hala jasotzen du Gipuzkoako Foru Aldundiko marko arautzaileak, 2/2015 Emakume eta gizonen berdintasunerarako Foru Legeak eta 4/2023 Legea, trans pertsonen benetako berdintasunari eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeari buruzkoak.

Prebentzio lanak indartzea

- Prebentzioari dagokionez, jaietan indarkeria matxistaren kontrako kanpainak egin dira urtero herriko emakume taldeekin elkarlanean.

- Horrez gain, tratu onen inguruko programa bat sustatu du Udalak Astigarragako nerabe eta gazteekin indarkeria matxistaren prebentzioa egiteko.
- **Berdintasun politiken eta indarkeria matxisten kontrako politiken arteko lotura ulertzea ezinbestekoa da.** Berdintasun Politikak herrian gizon eta emakumeok hobeto bizitzeko politikak dira, eta aitortza egin behar litzaioke. Ez baitago indarkeria matxistaren kontrako politikarik berdintasun politiken ikuspegitik gabe.

Emakumeentzako espazio seguruak

- Diagnostikoa zehar **atera dira espazio deseroso bat baino gehiago. Gehienak taberna eta aisialdi guneeekin erlazionatuta.** Poligonoko taberna edo antzeko zenbait lokal direla eta egoera deserosoak eta jarrerak sexistak pairatu dituzte zenbait emakumek, baita adin txikikoek ere.
- **Jai giroan eta sagardotegi garaian ere bizi izan dira antzeko giro deserosoak, jarrera eta eraso sexistak.**
- Hauei aurre hartzeko **kanpaina sendoen beharra** sumatzen dute elkarrizketatutakoek. Kanpaina hauek, ostalaritza, udala eta Emakumeon Etxearen artean egitea egoki ikusten dute. Zerbait iraunkorra beharko luke, urteetan zehar errepikatzen dena, kanpainak eragin gehiago izan dezan.
- Espazio deserosoak detektatzeko 2016an landutako **“Mapa morea”** abiapuntu gisa hartuta espazioak berreskuratzeko “ibilbide moreak” ere. Herria horrenbeste aldatzen ari den une honetan interesgarria izan daiteke. Bide batez, **emakumeen memoria kolektiboa berreskuratzeko balioko luke. Badaude baldintzak Hirigintza arloarekin lan egiteko**, 2016az geroztik eta HAPOaren lanketan elkarlana egon baitzen.

Udal mailan lanketa integrala

- Udal mailan duela gutxi egin zen **indarkeria matxista kasuen koordinaziorako protokoloa.** Hala ere **ez du beti funtzionatu eta hobetzeko beharra dago.** Hasteko, udalez kanpoko beste erakundeak sartu beharko lirateke, Osakidetza, Ertzaintza, Hezkuntza bezalako erakundeak. Finean, EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko erakundeen arteko **III. Akordioara egokitu beharko litzateke udal-protokoloa.**
- Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzioari dagokionez, **10 kasu antzeman ziren 2021an Eustaten arabera.** 9 kasu bikotekideen edo bikotekide ohien eskutatik etorritako indarkeria kasuak izan ziren. Bakarra izan zen familia barruko indarkeria moduan identifikatu zena. Horrek ematen duen biktimizazio tasa 28,8koa da.
- **Emakume askok arreta eta babesa inguruko herrietan eskatzen dutela** ohartu dira Emakumeon Etxeko zenbait partaide. Ohiko joera da zure herrian bertan seinalatua ez izateko beste herrietara jotzea. Baina kezka piztu beharko luke

horrek, eta, hartara, tokian tokiko arreta babestuago, barnekoiago, diskretuago batera bideratu litezke zerbitzuak.

- Donostia batean biktimizazio tasa 47,7koa dela esan beharra dago, eta Hernani batean 62koa. Zaila da jakitea biktimizazio tasa baxu horrek zer esan nahi duen.
- Udal mailan Berdintasun Politikak askotan Berdintasun teknikariaren bulegoan geratzen direla dirudi. **Udal barruan lanketa hauek gehiago landu beharko lirateke.** Esaterako, udaltzainekin eta gizarte zerbitzuekin lanketa gehiago eginaz, prebentzioa, trebakuntza, kasuen koordinazioa eta arreta hobetzeko asmoz.
- **Prebentzioan eta detekzioan hobetzeko**, DBHko familiekin lan hobea egiteko aukera egongo da zentroa Astigarragan kokatzen denean. Bestetik, jai eta aisialdi gunetan kanpainak egiteak ere hobetuko du egoera.
- **Emakumeon Etxeak paper oso garrantzitsua jo dezake gai honetan.** Batetik, sensibilizazioari begira, detekzioari begira, deribazioari begira, eta batez ere, osatzeari begira, hau da luzera begirako erreparazioari begira, indarkeria pairatu duten emakumeen ahalduntzean laguntzeko.
- Zentzu horretan, aipagarria da bai Emakumeon Etxearen sarrera, bai eta Gizarte Zerbitzuen arrera espazioetan **ez dagoela itxaron gelarik, ez eta espazio diskreturik ere.**
- **Haur, nerabe eta gazteekin lanketa** egiteko aukera egon daiteke hezkuntza zentroen bidez, guraso eta hezkuntzako gainontzeko eragileekin batera.
- **Adineko emakumeak antolatuta daudela probetxatuz** gaia haiekin lantzeko probestu beharko litzateke.

Erantzun soziala

- Salaketa sozialari dagokionez, Udalak urtero onartu du Azaroaren 25ean emakumeen kontrako indarkeria matxistaren arkako egunean adierazpen instituzional bat.
- **Aurrerapen asko eman dira** arlo honetan herri mailan. Duela urte gutxi arte eraiketa matxistak zeudenean Astigarragatik Donostiako ekimenetara mugitzen zen jendea erantzun soziala ematera. Salto kualitatiboa ere eman da, Plana hasi zenean indarkeria matxistaren salaketa soziala egiteko herritarrak Donostiako hurbiltzen baitziren. Egun, salaketa soziala herri mailan ere aktibatu egiten da, konzentrazio propioak eginez. Ez dago daturik zenbat konzentrazio egin diren jakiteko, baina oro har, herriko mobilizazioek gora egin dutela ikus daiteke.
- Horrez gain, **indarkeria matxista arbuilatzeko** eragile sozialek eta udal korporazioak elkar koordinatuta elkarretaratzeak deitu dituzte.

7. AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK

Eragile sozial, tekniko eta politikoekin diagnostikoa kontrastatu ostean, aurrera begira zenbait erronka identifikatu dira, IV. Plana diseinatze aldera kontuan hartu beharrekoak:

0. Planaren diseinuari begira:

- Ekintza kopuruaren muga: Ekintza kopurua altuegia izan da III. Planean, 101 ekintzako plana izan baita. Ondoren, horiek guztiak 4 urtetan garatzea ezinezkoa izan da. Oreka bilatu behar da aurrera begirako plan ambizioso eta aurrerakoia diseinatzen, baina era berean egingarria dena.
- Plangintza berriaren epealdia: Horri lotuta, eta Euskal Autonomia Erkidegoko tendentzia aldaketak ikusita, agian komeni da IV. Plana 2030 urte bitartekoa izatea, hau da, 6 urtekoa.
- Herritarren inplikazioa bilatzeko moduak: Azkenik, herritarren partaidetza inplikatzeko garrantzitsutzat jotzen da, baina gaur egungo bilera-aurkezpen irekien formatua birpentsatu beharra dago, ez baitu balio prozesuan jende gehiegi inplikatzeko.

1. Gobernu ona: Udal barrura begira

- Bereizkeriak identifikatzeko bitartekoak: Orokorrean datuak sexu-genero aldagaiekin jasotzen dira. Oraindik datuok ustiatu eta urteko memorietan aztertea falta da, bereizkeriak edo aurrerapausoak identifikatzeko. Diagnostiko eta ikerketa ugari egin dira, gehien bat Berdintasunetik. Aurrera begira ere ikerketen bideari heldu behar zaio, baina arlo gehiagoetatik.
- Komunikazio ez sexista eta inklusiboa: Gai garrantzitsutzat jo da herritarren eta teknikarien artean, eta asko geratzen dela egiteko azpimarratu da. Gaiaren trebatzea, tarteka errebisioak eta gomendioak egitea, eta itzulpenez gain, irudiei eta bestelako komunikazio kanalei erreparatzea ezinbestekotzat jo da.
- Prozedura administratiboak: Berdintasuna sustatzeko klausulen jarraipena egin behar da dirulaguntzetan. Bestetik, kontratazio publikoan klausula mota hauek nola txertatzen joan daitezkeen ikasi eta prozedurak zehaztu behar dira, orain arte ez baita gaia landu. Udalak hartzen dituen erabaki garrantzitsuetan genero eraginaren aurretiazko ebaluazioak egiten hasi behar da, legeak hala ezartzen duelako, baina ikusi behar da proiektu pilotu gisa zein lanekin hasi daitezkeen.
- Koordinazio egiturak: Ezinbestekoa da udal barruan berdintasun politikak aurrera eramateko udal mailako koordinazio egitura bat egotea. Helburua izan behar da arlo bakoitzak eta teknikari bakoitzak berdintasuna sustatzeko dagokion zereginen berri izatea eta zeregin hauei jarraipena egitea.
- Berdintasun politikak garatu ahal izateko trebakuntza: udal barruko teknikari eta ordezkari politikoek beren lan eremutik berdintasuna nola sustatu ulertu eta

ezagutzeko trebakuntza espezifikoak behar dira, bakoitzaren funtzioei egokituak eta praktikara bideratuak. Era berean, langile berrientzako harrera planetan berdintasunaren inguruko oinarritzko trebakuntzak txertatu behar dira.

- Erabaki gune parekideak: Ordezkaritza politikoen artean parekidetasuna dagoenez, hau da, erdia emakumeak eta erdia gizonak direnez bai gobernu bat eta udalbatza ere, erabaki esparru guztietan ordezkaritza orekatua egoteko neurriak hartu behar dira.
- Langileen kudeaketa: udalak bere langileekiko harremanean berdintasuna sustatzeko plan espezifikoa behar du legearen arabera. Bertan, enplegu publikoaren sustapenean, barne promozioan, laneko jazarpen sexista ekiditeko protokoloak, soldata arrakalak, bateragarritasun erantzunkidea eta beste hainbat arlo landu behar dira. Legealdi berri bakoitzean egin beharreko lana izango da hau.
- Gardentasuna eta kontu ematea: Berdintasun Politiken printzipio berrietako bat, legearen moldaketaren ostean, gardentasuna eta kontu ematea da. Gai honi lotuta, garrantzitsua da Udaletik garatzen diren Berdintasun Politiken berri ematea herritarrei, eta informazioa modu irisgarrian ematea, ahalik eta herritar gehienengana iritsi dadin. Honekin lotuta, Udalak sustatzen dituen partaidetza prozesu eta politiketan genero ikuspegia txertatzea ere garrantzitsua izango da.

2. Emakumeen Ahalduntzea

- Emakumeon Etxea ezagutarazi eta saretzea: Ekipamendu hau ekarpen handia izan da herriarentzat. Eskaintza oso zabala dago. Baina batzuen ustez, lokala ez da egokia. Diafanoa, intimitaterik gabekoa, harrera gunerik gabekoa. Askok ez dakite orainik zer den eta zertarako den Emakumeon Etxea, eta mesfidantzaz ikusten dute batzuk. Emakumeon Etxea herrian gehiago ezagutarazi eta herriko eragileekin elkarlanean aritzeko bideak probatzea interesgarria izan daiteke.
- Mugimendu feminista indartzea: Mugimendu hau nahiko ahul dago herrian, erreferente gutxi egon dira, greben urteetan aktibazioa eman den arren. Ikerketa, kanpaina edota sartzeko ekimenak sustatu nahi dira mugimendu feminista indartzeko.
- Berdintasun mahai txikia zabaltzea: Oso aktiboa izan da Planak iraun duen bitartean, baina partaideak ez dira asko. Udal kontseilu modukoa izanik, agian herritarrei ireki beharko litzaieke, edo antolatu gabeko emakumeei.
- Emakumeen arteko sareak sustatzea: Emakumeen bakardadeaz asko hitz egin dute elkarrizketatuek, bakardade ez desiratuek. Eta ondorioz, elkar ezagutu, elkar lagundu eta sartzeko beharraz ere. Batetik, ama bakarren egoera azpimarratu da, jaiotze tasa handia duen herria izanik arreta berezia behar dutelako. Bestetik, adinekoen emakumeak saretzeaz. Zahartzaroak emakume aurpegia du, helduak eta alargunak sartzeko proposamenak eskatu dituzte.

- Egoera zaurgarrian dauden emakumeengana iristea. Egun, zaurgarri egoeran dauden emakumeengana iristea asko kostatzen da. Errealitate hauetara hurbiltzeko lanketa propioak behar dira.
- Neska gazteen ahalduntzea: Hezkidetzazko modu integralean landu behar bada ere, eta neska mutilekin lan egin, oro har, neska gazteekin espezifikoki ahalduntzea eta saretzea lantzea ezinbestekoa da.

3. Gizarte antolaketa berdinzalea

- Berdintasun eza ikusaraztea. Bekak eta ikerketak egiteaz gain herritarren parte hartzearen bidez jendartearen kontzientziatzeko ekimenak egin daitezke, oroimen historikoarekin egin izan den moduan, esaterako emakumeen testigantzetan oinarrituta. Hizkuntza sinpleak erabiltzea kontzientziatorako garrantzitsua da, ulergarriak.
- Gizonekin eta mutikoekin lanketa espezifikokoak egitea. Beraien kontzientziatorako eta inplikazioa bilatzeko kanpainak egitea.
- Herritarren arteko konexio lantzea. Herritar askok herrian lo bai, baina ez dute bizitzarik egiten bertan. Herria asko hazi da azken urteotan, eta herri kohesioa lantzeko beharra dago. Elkartegintza sustatzea eta, Kohesio soziala lantzeko herriko eragileen mapa egitea, identifikatu eta elkarlanerako ekimenak proposatzea. Herriko eragileen arteko koordinazioa bultzatzea, agian, espazio bateratu batekin, Lan saioetan atera den proposamen bat izan da “gizarte kontseilua bat” sortzea.
- Jaietan berdintasuna lantzeko proposamenak egitea. Kultura eta Kirola arloetatik jai batzordearekin eta ostalaritzarekin batera sustatutako lanketak izatea. Ez bakarrik eraso matxisten kontua, genero rol eta estereotipoak zalantzan jarri eta emakumeen ahalduntzea eta parte hartzea sustatzeko ere.
- Astigarragaren aniztasuna islatzea. Aniztasunerako mahai txikiaren lana ezagutarazi behar da, behar ezberdinak ikusarazi interseksionalitatearen ikuspegitik: Kultur aniztasuna, familia eredu ezberdinak, baliabide sozioekonomiak, genero-identitateak, gaitasun funtzionalak, hizkuntzak, adina, eta abar luze bat.
- Espazio publikoaren erabilera parekidea eta berdinzalea sustatzea. Izan ere, emakume eta gizonek ez ditugu berdinean erabiltzen espazio publikoak, plazak, tabernetako terrazak, igande goizetan edo larunbat gauetan. Gaiak garrantzia handia du herri kohesiorako.
- Zerbitzu publikoak hobetzeko proposamen zehatzak egitea: Ginekologoak eta pediatrak ugaritzeko, anbulatorio berria sustatu, haurrei begira, ludoteka bat ireki, gizarte zerbitzuentzako espazioak egokitu eta abar.

- Hezkidetza herri mailan lantzea: Aukera bat izan daiteke hezkuntza-mahaian hezkidetza-gaiak lantzea: Ikastetxeekin, guraso elkarteekin, aisialdi taldeko eragileekin eta abarren parte hartzearekin.
- Genero-rol eta estereotipoak deseraikitzen saiatzea eta genero identitate eta harreman afektibo sexual anitzak ikusaraztea.
- Zaintza duinak sustatzea. Zaintzaren inguruko diagnostiko interesgarriak egin ziren III. Planean zehar, baina ekintza planik ez da egin. Enplegua, prekarizazioa, pobrezia, kontziliazioa eta osasuna uztartzen dituen gaia da zaintza eta emakumeen bizitzak baldintzatzen dituen gaia. Zaintza eredu berriak, publiko-komunitarioak eta gizonen inplikazioa bilatzen dutenak sustatu.
- Ostalaritza berdintasunaren aldeko ekimenetan inplikatzea. Sektore ekonomiko garrantzitsua da ostalaritza. Sektore honetatik berdintasuna nola sustatu daitekeen aztertzea ezinbestekoa da.

4. Indarkeria matxistarik gabeko herria

- Haur eta nerabeen kontrako indarkeria matxistari aurre hartzeko programak eta ekimenak sustatzea.
- Udal barruan sexuagatiko jazarpena eta jazarpen sexualari aurre egiteko protokoloa sortzea.
- Instituzioen arteko koordinaziorako protokoloa berritzea. EAEko III. Akordioari egokitu beharra dago. Horrek erakunde gehiagorekin koordinatzea ekarriko du; Ertzaintza, Epaitegiak, Osakidetza, Hezkuntza eta abar.
- Sentsibilizazioa, prebentzioa eta bisibilizazioa lantzea. Horretarako, publiko egin datuak eta gaiaren kudeaketak. Datuen sistematizazioa hobetu.
- Indarkeriari aurre egiteko dauden baliabideak ezagutaraztea. Erraztu baliabideak eskatzeko bideak (tartean, Gizarte Zerbitzuen espazioa hobetu).
- Maskulinitate berriak lantzea proiektu berrien bidez.
- Udal barruan. Koordinazioa, elkarlana eta trebakuntza handitzea.
- Emakumeentzako deserosoak diren espazioen inguruko hausnarketa eta interbentzioa lantzea. Ez soilik hirigintzaren ikuspegitik, espazio publikoaren erabileraren inguruan ere. Helburua emakumeek espazio publikoa berreskuratzea denez, ahalduntzearen ikuspegitik egin behar da, ez beldurraren ikuspegitik.
- Erantzun soziala mantentzea. Herri aktibazioa badago, adibidez gaueko emakumeen brigadekin edota salaketa kontzentrazioak herri mailan eginez. Greba feministek sareak indartu dituzte. Baina herri aktibazioa ez da lineala eta erantzun maila mantentzea da aurrera begirako erronka.

I. ERANSKINA: EKINTZAZ-EKINTZAKO BALORAZIOAK

HELBURUA: 1.1. Berdintasunerako politiken kudeaketa, planifikazioa eta koordinazioa hobetzea

EKINTZAK	Betetze-maila	Azalpenak
1.1.1. Berdintasunerako Plana onartzea, martxan jartzea eta langile guztiei zein herritarrei honen berri ematea. Dokumentu hau herritarrek eskura izango dute uneoro eta ekarpenak egiteko bideak zabalduko dira, Berdintasunerako Teknikariarekin harremanetan jarritz.	Erdizka egin da	Plana onartu da eta web orrian jarri da, baina ez da Plana ezagutarazteko bestelako ahaleginik egin.
1.1.2. Berdintasun Planaren inguruko informazioa langile berrientzat diseinatuko den harrera planean txertatu, Astigarragako Udalean sartu berriak diren langileek ere honen berri izan dezaten.	Ez da egin	Harrera-planean informazio hau sartzea ez da sistematizatu. Momentuz, Berdintasun Planaren informazioa ez zaie sistematikoki ematen langile berriei.
1.1.3. Planaren urteroko kudeaketa-planak eta memoria-txostenak egitea, behar bezalako segimendua egiten zaiola bermatzeko.	Ez da egin	Teknikari aldaketak egon dira azken urteotan eta ez da urteroko memoria-txostenik egin.
1.1.4. Udal-sail bakoitzari urte bakoitzean Berdintasunerako Planari dagozkion ekintzak zeintzuk diren helaraztea.	Ez da egin	Ez da koordinaziorako egiturarik egon ez eta Berdintasun teknikari iraunkorrik, eta ekintza hau ez da egin.
1.1.5. Berdintasun Batzordeak (politikoa) urteroko bilerak egitea Planari segimendua egiteko, berariaz horretara zuzendutako saioetan; gutxienez urtean bi bilera.	Ez da egin	
1.1.6. Teknikarien sail-arteko batzordea berriz ere martxan jartzea, bere funtzioak ongi definituz eta dinamika egonkor bat sortuz, eta	Ez da egin	

ASTIGARRAGAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN EBALUAZIOA eta EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

guzti hori dokumentu batean jaso; gutxienez hiru hilean behin bilduko dira.		
1.1.7. Udal-sailen arteko eta ordezkari-politikoaren arteko koordinaziorako bilera bat egin gutxienez urtean behin Planari segimendua egiteko.	Ez da egin	
1.1.8. Udalez gaindiko koordinazio-gune naiz ekimenetan parte hartzen jarraitzea eta gehiagotan parte hartzen hastea baloratzea. Hala nola, Gipuzkoako Berdintasun Teknikarien Sarea, Beldur Barik ekimena, Berdinsarea, Eskualdeko foro feminista...	Erdizka egin da	GFAk antolatutako Emakumeon Etxeetako lanketetan parte hartu du Udalak. GFAko Berdintasun teknikarien langunean eta EUDELen Berdinsarearen parte hartu izan da teknikaria egon denean.

HELBURUA: 1.2. Genero-ikuspegia zeharlerrotasunez txertatzea udalaren lan-jardunean

EKINTZAK	Betetze-maila	Azalpenak
1.2.1. Udal-aurrekontuak genero-ikuspegitik aztertzea eta, azterketa honen ondorioetan oinarrituz, beharrezko egokitzapenak egitea.	Ez da egin	Ez da egon gaitasunik gai honi heltzeko.
1.2.2. Urtez urteko ekintza-planari lotuta, udal-sail ezberdinetako langileek berdintasunaren ikuspegitik dituzten trebakuntza beharrak zeintzuk diren identifikatzea eta hauetan oinarrituta trebakuntza-plan bat diseinatzea urtero.	Ez da egin	Ez da egon gaitasunik gai honi heltzeko.
1.2.3. Udal-sail ezberdinetako langileei genero-ikuspegiz lan egin ahal izateko beharrezko trebakuntza eskaini, aukera egonez gero trebakuntza sail bakoitzaren behar espezifikoetara egokitu (inguruko udalekin koordinatu daiteke horretarako).	Ez da egin	Ikastaro bakarra eskaini da, hizkuntza ez sexistari buruzkoa. Ez da bestelako trebakuntza espezifikorik egin.

ASTIGARRAGAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN EBALUAZIOA eta EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

1.2.4. Udal ordezkari politikoak berdintasunean trebatzeko eta sentsibilizatzeko trebakuntza-saioak antolatzea.	Ez da egin	Ez da trebakuntzarik egin ordezkari politikoekin.
1.2.5. Dirulaguntza, kontratazio, lehiaketa eta abarren pleguetan berdintasun klausulak txertatzea, ereduak sortu eta irizpideak bateratuz.	Erdizka egin da	Dirulaguntzen ordenantza berritu da eta arau horretan berdintasuneko irizpideek puntuazioaren % 10a suposatzen dute. Kontratazio eta lehiaketetan ez da berriazko lanketarik egin.
1.2.6. Berdintasun klausulen aplikazioari segimendua egitea.	Ez da egin	Dirulaguntzen klausularen jarraipenik ez da egin. Ez daukagu sistematizatuta jarraipen hori.
1.2.7. Berdintasunerako Teknikariak udal-sailei etengabeko laguntza eta aholkularitza eskaintzea genero-zeharlerrotasunez lan egiten laguntzeko.	Erdizka egin da	Laguntza eskatu denetan egin da, baina ez dago aholularitza sistematizatuta
1.2.8. Genero-ikuspegia eguneroko lanean sistematizatzen joateko neurriak hartzea, adibidez espediente programan integratzea.	Ez da egin	Espediente programak ez ditu udalak kudeatzen. Sexu-aldagaia sartzeko hautazkoa da programan, legez informazio hau betetzea eskatzen den arren.
1.2.9. Udalaren euskarri eta datu-base guztietan sexu-aldagaia txertatzeko lanketa egin, euskarri eta datu-base ezberdinetan beharrezko egokitzapenak eginez.	Egin da	Ez dago sistematizatuta udalak kudeatzen duen informazio guztia. Urteko zerbitzuen memorietan ez da aztertzen sexu-genero aldagaiak ematen duen informazioa.
1.2.10. Datu-baseak eguneratuak izatea, beti ere sexuaren arabera bereizita eta hauei segimendua egitea. Datu hauek Astigarragako Udaleko datu-basean teknikari guztien eskura egongo dira eta sail bakoitza arduratu beharko da berari dagozkion datuak osatzeaz eta eguneratuta mantentzeaz.	Ez da egin	Ez daude zerrendatuta Astigarragako udalak dauzkan datu base guztiak.

ASTIGARRAGAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN EBALUAZIOA eta EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

1.2.11. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexistaren inguruko trebakuntzan ikasitakoa aplikatu eta udalean sortzen diren testu guztietan irizpide hau aplikatu. Hizkuntzaren erabilerari segimendua egin.	Ez da egin	Segimendu hori ez dago sistematizatuta
1.2.12. Udal-sail bakoitzarentzat estrategikoak diren diagnostiko eta plangintza guztietan genero-ikuspegia hasieratik txertatu dadin bermatzea, balizko genero arrakalak identifikatu eta hauetan eragitea ahalbidetuz.	Ez da egin	Ez da jarraipenik egiten arlo edo departamentu bakoitzaren politketan genero ikuspegia txertatzeko.

HELBURUA: 1.3. Berdintasun politikak aurrera eramateko dauden baliabideak eta azpiegiturak hobetzea eta indartzea

EKINTZAK	Betetze-maila	Azalpenak
1.3.1. Berdintasun Teknikaria lanaldi osoz kontratatzea.	Erdizka egin da	Berdintasuna, Elkarbizitza eta Partaidetzako teknikaria lanaldi osoz kontratatu da; lanaldi horren erdia berdintasun-gaietarako da. Beraz, une honetan lanaldi erdia dago udalean berdintasunerako.
1.3.2. Berdintasun-politikak aurrera eramateko urtez urte aurrekontua handitzen jarraitzea.	Egin da	Aurrekontuan igoera nabarmena egon da, tartean Emakumeon Etxean eta Berdintasun Teknikariaren postuan egin den inbertsioagatik.
1.3.3. Berdintasuneko dirulaguntza eskaintzen jarraitzea, herriko elkarte edo banakoek honen erabilera egin dezaten sustatuz.	Egin da	4.000 euroko dirulaguntza ematen da.

ASTIGARRAGAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN EBALUAZIOA eta EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

1.3.4. Sail bakoitzak berdintasunerako III. Planari lotuta haien partidatik zuzendu beharreko aurrekontua zehaztea eta berezitua izatea.	Ez da egin	Ez da egon departamentuekin lanketa iraunkorrik.
1.3.5. Berdintasunetik urtero beka baterako diru-partida bat izatea, adibidez, emakumeen ekarpenen inguruko ikerketak sustatzeko.	Egin da	2023ko urte hasieran bekaren III. deialdia argitaratu da eta 2023ko maiatzean ikerlana aukeratuko du epaimahaiak.
1.3.6. Orain arte Berdintasun Sailarekin hitzarmena duten elkarteei (dirulaguntza izendunak dira), hitzarmena berritzen jarraitzea	Egin da	Herriko bi emakume elkarerekin daude hitzaremanak eginda. Harituz elkarerekin eta Emakumeon Etxea sustatzeko elkarerekin egindakoak.

HELBURUA: 1.4. Udalak berdintasunarekiko hartu duen konpromisoa herritarrei ikusaraztea

EKINTZAK	Betetze-maila	Azalpenak
1.4.1. Udal-organoetan parekidetasuna bermatzea eta irizpide hauek idatziz jasotzea, aurrerantzean kasu guztietan horrela izan dadin.	Erdizka egin da	Ez da idatziz jaso baina aintzat hartzen da.
1.4.2. Udal-ordezkaritza behar duten ekimen eta ekitaldietan ordezkaritza parekidea bermatzea.	Egin da	
1.4.3. Udal-sail ezberdinek antolatzen dituzten ekintza guztietan partaideen sexuen arteko parekidetasuna mantentzea (sexu bakoitzak % 40ko gutxieneko parte hartzea duela bermatzea) eta lan edota egitekoen banaketan genero-rolak ez erreproduzitzea.	Erdizka egin da	Ez dago sistematizatuta eta ez da jarraipenik egin.

ASTIGARRAGAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN EBALUAZIOA eta EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

<p>1.4.4. Egun jakinetan (Martxoaren 8a, azaroaren 25a...) berdintasunaren aldeko adierazpen publikoak egitea; eta herriko mugimendu feministak edo emakumeen elkarteek egiten dituzten jarduerak babestea.</p>	<p>Egin da</p>	<p>Data esanguratsuetarako kanpainak Berdintasun Mahai Txikian diseinatzen eta adosten dira.</p>
<p>1.4.5. Berdintasun sailetik martxan jartzen diren politikei ikusgarritasuna ematea, sare sozialen bitartez, webgunean zein bestelako euskarrien bitartez; berdintasunerako espazio digital propioa sortzea ere baloratuko da.</p>	<p>Egin da</p>	<p>Udal webguneko atala eguneratu behar da, zaharkituta geratu delako. Bestelako bitartekorik ez da sortu.</p>
<p>1.4.6. Herritarrei zuzendutako gutun, jakinarazpen, ohar, kartel edota bestelako euskarrietan komunikazio barneratzailea erabiltzea (hizkuntza zein iruditegia kontuan hartuz).</p>	<p>Erdizka egin da</p>	<p>Intuizioz udal langileak saiatzen dira komunikazio ez sexista egiten. Baina ez da jarraipenik egiten.</p>
<p>1.4.7. Berdintasunaren inguruko sentsibilizazio kanpainak antolatzea, arlo ezberdinen inguruan eta sail ezberdinetatik. Sail-artekeo batzordean koordinatu.</p>	<p>Ez da egin</p>	<p>Berdintasun politiketarako koordinatzeko egiturarik ez dagoelako.</p>
<p>1.4.8. "Egutegi morea" sortzea, berdintasunaren inguruan antolatzen diren ekintza eta ekimen guztiak jasotzeko, udalarenak naiz antolatutakoaren berri ematen diguten elkarte eta eragileak.</p>	<p>Ez da egin</p>	<p>Ahalegina egin da; google calendar bat sortu da (Agenda izenekoa) eta hor berdintasun saila, kultura saila eta emakumeon etxeak antolatutako ekintzak erregistratzea da asmoa, baina ez dugu lortu</p>

HELBURUA: 1.5. Udala erakunde berdinzalea izateko pausoak ematea

EKINTZAK	Betetze-maila	Azalpenak
1.5.1. Udal-mailako koordinazio egituretan berdintasunean aditua den partaideren bat egin dadin bermatu, berdintasuna zeharlerrotasunez lantzeko.	Ez da egin	Berdintasun teknikariaren jardun erdiak ez du ematen koordinazio gune guztietan egoteko aukerarik.
1.5.2. Kontziliazio eta erantzunkidetasun neurrien erabileraren inguruko datuen azterketa egin eta udaleko errealitatea zein den aztertu; azterketaren emaitzaren arabera beharrezko neurriak hartu.	Erdizka egin da	

HELBURUA: 2.1. Emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa sustatzea

EKINTZAK	Betetze-maila	Azalpenak
2.1.1. Emakumeentzako trebakuntza-saioak antolatzea. Plangintza modu parte-hartzailean planteatu daiteke, gaian interesa duen jendeak parte hartzeko aukera izan dezan eta modu honetara plangintza jende anitzarentzako egokia izan dadin.	Egin da	Emakumeon Etxeak antolatzen ditu trebakuntza-saioak. Normalean Etxeko talde motoreak erabakitzen ditu landuko diren gaiak.
2.1.2. Emakumeen ahalduntzea eta saretzea sustatzeko Astigunea bezalako emakumeen espazioak bultzatu eta lagundu, herriko emakume ezberdinen beharretara egoitzen saiatuz.	Egin da	Emakumeon Etxea sortu da.

ASTIGARRAGAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN EBALUAZIOA eta EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

<p>2.1.3. Gaztelekuan aurrera eramaten den programazioaren bidez neska gazteekin jabekuntza eta boteretzea lantzen jarraitu. Beharrezkoa den kasuetan autodefentsa feminista ikastaroa bezalako lanketa puntualak planteatuz.</p>	<p>Erdizka egin da</p>	<p>Neskatilak ahalduzko ekimenak egin dira programazioaren barruan, baina egituratu gabekoak dira, jarraikotasunik ez duten ekimen puntualak.</p>
<p>2.1.4. Emakumeon Etxea sortzeko beharra eta aukera aztertu, eta posible balitz, hau sortzeko prozesua martxan jartzea; prozesuan ahalik eta emakume gehienek eta anitzenek parte har dezaten sustatuz eta beraien arteko sareak indartzeko baliatuz.</p>	<p>Egin da</p>	<p>Emakumeon Etxea sortu da.</p>
<p>2.1.5. Landa-eremuko emakumeen beharrak identifikatu eta erantzuna eman: egindako ikerketaren emaitzak aztertu eta berriazko neurriak proposatu.</p>	<p>Ez da egin</p>	<p>Landa eremuari buruzko ikerketa bat egin da baina berdintasun sailetik ez dugu aztertu.</p>
<p>2.1.6. Diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeengana iristeko bideak landu eta behin harremana eginda, beraien beharretara egokitzen diren ekintzak edo neurriak proposatu.</p>	<p>Ez da egin</p>	<p>Zaurgarritasun egoeran egon daitezkeen emakumeen inguruko lanketarik ez da egin espezifikoki.</p>

HELBURUA: 2.2. Emakumeen ahalduzko soziala eta politikoa sustatzea eremu ezberdinetan

EKINTZAK	Betetze-maila	Azalpenak
<p>2.2.1. Berdintasun kontseilua martxan jartzea eta dinamika egonkor bat izatera itzultzea, ahalik eta emakume gehienek eta anitzenek partaidetza sustatuz.</p>	<p>Egin da</p>	<p>Berdintasun Mahai Txikia sortu da, eta iraunkorki funtzionatu du.</p>

ASTIGARRAGAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN EBALUAZIOA eta EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

<p>2.2.2. Herriko emakume-talde eta elkarte ezberdinen, zein gaiarekiko interesa duten emakumeen arteko sareak sortu eta indartzea. Honetarako udalak baliabideak jartzea, hala nola Berdintasun kontseilua edo beharrezkoa ikusten den beste edozein bide. Adibidez, Martxoaren 8a, Azaroaren 25a, Txotx garaia eta hauen antzerako data puntualei begira lanketa bateratua egitea proposatuz.</p>	<p>Egin da</p>	<p>Kanpaina horiek Berdintasun Mahai Txikian landu dira.</p>
<p>2.2.3. Herriko emakume elkarteek edota talde feministek egiten duten lana babestu eta sustatzea, posible den kasuetan elkarlana sustatuz.</p>	<p>Egin da</p>	<p>Hitzarmen eta dirulaguntzak banatzen dira eta Berdintasunerako Mahai Txikiaren bidez, ekimenak elkarrekin antolatu dira.</p>
<p>2.2.4. Herriko eragile eta elkarteetako zuzendaritza-taldeen osaeraren erregistro bat sortu eta honen segimendua egin, emakumeen presentzia nolakoa den aztertzeko eta honen arabera hartu beharreko neurriak zeintzuk diren identifikatzeko.</p>	<p>Ez da egin</p>	
<p>2.2.5. Emakumeen presentzia sustatzea herriko elkarte eta talde ezberdin guztietan; batik bat emakumeen presentziarik ez duten horietan.</p>	<p>Erdizka egin da</p>	<p>Gure izarra elkartarekin egin da.</p>
<p>2.2.6. Kirol ekitaldiak antolatzen direnean, udalak antolatutakoak zein diruz lagundutakoak, emakumeen partaidetza sustatzeko berariazko neurriak hartzea.</p>	<p>Egin da</p>	
<p>2.2.7. Emakumeen presentzia sustatzea kirolean, eskola kirolek hasita, helduen kirol-talde eta ekimenetara arte. Adibidez, emakumeen kirol-taldeekin hitzarmenak eginez.</p>	<p>Egin da</p>	

ASTIGARRAGAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN EBALUAZIOA eta EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

2.2.8. Herriko elkarte ezberdinei berdintasunaren inguruko trebakuntza eskaintzea, sentsibilizazioa sustatu eta etorkizunean emakumeen parte-hartzea errazteko.	Erdizka egin da	Gutxi batzuei
2.2.9. Parte-hartze prozesuak genero-ikuspegitik egiten direla bermatzea (partaidetza eta generoa lantaldean sortutako check-lista erabiliz) eta honi segimendua egitea.	Ez da egin	

HELBURUA: 2.3. Emakumeen egindako ekarpenak aitortzea eta hauen ikusgarritasuna sustatzea

EKINTZAK	Betetze-maila	Azalpenak
2.3.1. Emakumeek sortutako eta emakumeak protagonistatzat dituzten kultura-ekitaldi eta emanaldiak antolatzen jarraitzea, heldu, gazte zein haurrentzako programazioetan.	Egin da	Kultura Saitetik haurrei zuzendutako programazioa ere lantzen dute eta aukeratu izan dituzte emakume protagonistak dituzten antzerki edo emanaldiak.
2.3.2. Emakumeon Plazaren proiektua berrartu eta, aurrez egindako lanketa kontuan hartuta, prozesua amaitu eta herritarrei aurkeztu.	Egin da	
2.3.3. Emakume sagardogileak ikustarazteko egiten ari den lana sustatzen jarraitu. Egin zen ikerketaren harira prestatutako erakusketa baliatu eta honi ikusgarritasuna eman.	Egin da	

ASTIGARRAGAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN EBALUAZIOA eta EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

2.3.4. Emakumeen ekarpenen aitortza hiri-elementuetan ere txertatzea, hala nola kale izendegian edota eskultura eta abarretan.	Egin da	
2.3.5. Udal-liburutegian txoko feminista sortzea, urtez urte elikatzen joatea eta ikusgarritasuna ematea, batez ere data konkretuetan.	Egin da	
2.3.6. Irakurketa-tailer feminista bat martxan jartzea, udal-liburutegiarekin elkarlanean, hausnarketa sustatzeko eta txoko feministako materialari ikusgarritasuna emateko.	Ez da egin	
2.3.7. Herriko jaietan emakumeen partaidetza maila guztietan bermatzeko neurriak hartzea (kontzertuak, ekintza ezberdinak...).	Egin da	
2.3.8. Landa-eremuak Astigarragan historikoki izan duen garrantzia dela eta, Urriaren 15a, landa-eremuko emakumeen nazioarteko eguna, udalaren egutegian sartu eta herri mailan merezi duten errekonozimendua eman. Adibidez, ekitaldi baten bidez emakume hauei omenaldi bat eginez, mahai inguru bat proposatuz eta abar.	Egin da	Behin egin da
2.3.9. Emakumeen memoria berreskuratzeko, emakumeen ikusgarritasuna sustatzeko ekimenak sustatzea.	Egin da	- Herriko kaleen izendegian: Kontxa Etxeberria plaza - Emakume gobadarien ibai parkea sortu da - Kontxa Etxeberriari buruzko nobela bat idazten ari dira (Kontxaren figuraren dibulgazioa sustatzeko)
2.3.10. Kultura-etxe berria jardunaldi feministak egiteko eskaintzea edota honetarako erraztasunak ematea, espazio egoki bat eta behar bezalako ikusgarritasuna izan dezaten.	Egin da	
2.3.11. Astigarragako turismo eskaintzan emakumeen ikusgarritasuna sustatzea eta bermatzea.	Erdizka egin da	Kontxa Etxeberriaren figurari ikusgarritasuna eman nahi zaio

HELBURUA: 3.1. Emakumeen langabezia-tasa murriztea eta enplegu duina sustatzea

EKINTZAK	Betetze-maila	Azalpenak
3.1.1. Politika fiskalean emakumeen baldintzak kontuan hartzea.	Ez da egin	Ama bakarren eskaerak egon dira.
3.1.2. Astigarragako enpresei berdintasun-planen inguruan dituzten betekizun legalen informazioa iritsaraztea eta oinarrizko aholkularitza eskaintzea, berdintasun-politikak martxan jartzera animatuz.	Ez da egin	
3.1.3. Zaugarritasun egoera handiengan dauden emakumeen enplegua sustatzeko estrategikoak diren eremuak identifikatzea, hauek dokumentu batean jasoz.	Ez da egin	
3.1.4. Zaugarritasun egoera handienetan dauden emakumeen enplegua sustatzeko ekimenak diseinatzea eta martxan jartzea.	Ez da egin	
3.1.5. Zaugarritasun egoera handienetan dauden emakumeek herri baratzeetara lehentasunezko sarbidea izan dezaten bermatzea eta haien parte hartzea sustatzea.	Ez da egin	

HELBURUA: 3.2. Zaintza erdigunean jarriko duen gizarte erantzunkidea sustatzea

EKINTZAK	Betetze-maila	Azalpenak
3.2.2. Guraso eskolan hezkidetza eta erantzunkidetasuna berariaz landu dadin sustatzea; udalak diruz laguntzen duen ekimena da guraso eskola, beraz, antolatzen jarraitzen bada hezkidetza landu dadin sustatu behar da.	Ez da egin	
3.2.3. Zaintza-ardurak dituzten pertsonen antolatzen diren ekimen edota ekitaldietan parte hartzeko aukera izan dezaten, haurrei eta helduei zuzendutako ekintzak aldi berean antolatzea edota zaintza-zerbitzua eskaintzea (kultura-etxe berrian honetara zuzendutako espazio bat egon daiteke).	Egin da	
3.2.4. Eskualdeko zaintzaren inguruko diagnostikoa burutzen parte hartu.	Egin da	
3.2.5. Zaintzaren inguruko diagnostikoan oinarrituta, zein behar izanez gero gehiago sakonduz, zaintzaileen behar espezifikoak identifikatu eta hauei erantzuteko neurriak hartu.	Erdizka egin da	Diagnostikoa egin da, baina neurriak ez dira hartu
3.2.6. Amatasun eta heziketa eredu ezberdinen inguruko lanketa egitea herri-mailan, hitzaldiak, mahai inguruak edota tailerrak antolatuz, biztanleria sentsibilizatzeko eta gaiaren inguruan hausnartzeko.	Erdizka egin da	Emakumeon Etxearen elkartearen bidez egin da.

HELBURUA: 3.3. Herritarrak berdintasunean hezten jarraitzea, hezkidetzaren balioak adin guztietako biztanleriaren artean zabalduz

EKINTZAK	Betetze-maila	Azalpenak
3.3.1. Eskolaz kanpoko jarduera ezberdinetan diharduten begirale eta entrenatzaileei berdintasunaren eta hezkidetzaren inguruko trebakuntza eskaini, beren jardunean kontuan izan dezaten. Eskolako irakasleak ere gonbidatu daitezke trebakuntza honetan parte hartzera.	Ez da egin	
3.3.2. Udal kiroldegiko langileak berdintasunean trebatzea, oinarrizko ezagutza batzuk barneratu ditzaten.	Ez da egin	
3.3.3. Herri-eskolako hezkidetzeta-taldearekin koordinatu beraiekin elkarlana sustatzeko zein beharko balute udalak bere baliabideak eskaintzeko.	Ez da egin	
3.3.4. Hezkidetzaren inguruko diagnostikoa egitea hezkuntza ez-formalean eta, honetan oinarrituta, lanean jarraitzeko lan-ildoak zehaztea.	Ez da egin	

ASTIGARRAGAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN EBALUAZIOA eta EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

<p>3.3.5. Gaztelekuan, aisialdi pedagogikoaren bitartez, berdintasunaren balioak zeharka lantzen jarraitu bertan burutzen diren ekintza ezberdinetan.</p>	<p>Egin da</p>	
<p>3.3.6. Gizon helduekin zein nerabeekin maskulinitate-eredu berriak lantzeko tailer berezituak antolatu.</p>	<p>Erdizka egin da</p>	<p>Gaztelekuan mutilekin sukaldaritza erotikoa tailerra egin da 2023ko martxoan</p>
<p>3.3.7. Gazteekin, modu ludikoan, genero-estereotipoen gaia lantzea, instagrameko lehiaketa baten bidez, adibidez.</p>	<p>Erdizka egin da</p>	<p>2023an hainbat ekintza egin dituzte gaztelekuko nerabeekin.</p>
<p>3.3.8. Neska gazteentzat erreferente izan daitezkeen emakume kirolariak gonbidatzea, eskolan hitzaldi bat ematera edota nesken taldeen entrenamenduetara, adibidez, beren iruditegian emakume-kirolariak ere egon daitezzen.</p>	<p>Egin da</p>	
<p>3.3.9. Harreman osasuntsuak sustatzeko sexu-aholkularitza zerbitzua eskaintzea herritar guztiei harreman osasuntsu eta berdinzaleak izan ditzaten; zerbitzu honen baitan, egun edota ordutegi espezifikoak eskaini gazteentzat, beraiei gertukoak edo erosoak zaien espazio batean.</p>	<p>Egin da</p>	<p>2023ko urtarrilaren 25etik zerbitzua etenda, zerbitzua eskaintzen duen enpresa desegin delako. Datorren ikasturteari begira lehiaketa aterako dugu</p>
<p>3.3.10. Berdintasunaren gaia berariaz lantzen duten kultur-ekitaldiak edota ekintzak antolatzen jarraitzea, batik bat data puntualen inguruan (Martxoaren 8a, Azaroaren 25a...), herritarrak gaiarekiko sentibilizatzen jarraitzeko. Bestelako datak ere, hala nola, ekainaren 28a, egutegira gehitzen joan urtez urte.</p>	<p>Egin da</p>	

ASTIGARRAGAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN EBALUAZIOA eta EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

3.3.11. Gabonetako oparien inguruko kanpaina bat egin, genero rol eta estereotipoak haustera eta kontsumo arduratsua bultzatzera bideratua.

Ez da egin

HELBURUA: 4.1. Indarkeria matxistaren aurrean Udalak jarrera irmoa izatea

EKINTZAK	Betetze-maila	Azalpenak
4.1.1. Indarkeria matxista kasuen aurrean Astigarragako Udalaren Erantzun publikorako protokolo propioa sortzea, Gipuzkoako Foru Aldundiak sortutako ereduari oinarrituta eta herriko talde feminista eta emakume taldeekin elkarlanean.	Erdizka egin da	2019an egin zen protokoloa baina eguneratu beharra daukagu (Emakumeon Etxea txertatu, III. Akordioari egokitu)
4.1.2. Indarkeria matxista kasuen aurrean hau gaitzesteko erantzun publiko irmoa eta argia adieraztea, Astigarragan ematen diren kasuetan.	Egin da	
4.1.3. Udaleko komunikazio-arduradunak indarkeria matxistarekin lotutako gaien trataera nola egin behar den jakiteko oinarrizko trebakuntza jasotzea.	Ez da egin	

HELBURUA: 4.2. Astigarragan indarkeria matxista kasuak prebenitzea eta sentsibilizazioa lantzea

ASTIGARRAGAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN EBALUAZIOA eta EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

EKINTZAK	Betetze-maila	Azalpenak
4.2.1. Indarkeria matxistaren eta sexu indarkeriaren inguruko datu-bilketa sistematikoa egitea, berariaz horretarako sortuko den datu-base batean, datu hauek ezagututa ekintzarako fokua hobeto jarri ahal izateko.	Egin da	
4.2.2. Urtero Astigarragan jazo diren indarkeria matxista kasuen inguruko txostena egitea.	Egin da	Gizarte zerbitzuetatik egiten da
4.2.3. Batez ere gazteekin indarkeria matxistaren prebentzioa egin, helburu honetara bideratuta egongo diren gai ezberdinak landuz; adibidez, Beldur Barik programan parte hartuz, harremanak eta komunikazio ez-bortitza landuz edota sexualitatea eta harreman osasuntsuak landuz.	Ez da egin	
4.2.4. Jaietan zein txotx garaian (martxoko larunbatetan) gune seguru bat eskaintzea, balizko eraso sexisten aurrean erabili daitekeen baliabide bezala.	Egin da	
4.2.5. Azken urteetan egin izan den bezala, jaietan indarkeria matxista prebenitzeko berariazko kanpaina bat egitea; txotx garaian ere egin daiteke.	Egin da	
4.2.6. Tabernari, sagardogile eta merkatarienen kolektiboarekin bildu, sentsibilizazio saio batzuk burutu, eta testuinguru honetan ematen diren erasoen aurrean jarduteko protokolo bat sortzea; prozesu honen bidez komunikazio bideak landuko dira, datu-bilketarako zein etorkizuneko koordinaziorako.	Egin da	
4.2.7. Gurasoekin indarkeria matxistaren inguruko lanketa egitea, beren seme-alaben heziketan gaia lantzeko tresnak emanaz; guraso eskolaren programaketaekin uztartu daiteke.	Ez da egin	

ASTIGARRAGAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN EBALUAZIOA eta EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

4.2.8. Herriko sarreretan eta leku estrategikoetan indarkeria matxista gaitzesteko adierazpen edota kartel iraunkorrak jartzea.	Egin da	
4.2.9. Sentsibilizazio kanpainak eta ekintzak burutzea urte guztian zehar, eta bereziki Azaroaren 25aren bueltan.	Egin da	

HELBURUA: 4.3 Indarkeria matxista jasaten duten emakumeei ematen zaien arreta hobetzea

EKINTZAK	Betetze-maila	Azalpenak
4.3.1. Aurrez aurreko arretan diharduten profesionali gisa honetako kasuak artatzeko beharrezko trebakuntza espezifiko eskaini; adin txikikoei lotutako berariazko trebakuntza ere eskainiko da. Urtetik urtera trebakuntza beharrei segimendua egin eta beharrezkoa denean trebakuntza eguneratu.	Erdizka egin da	Behin egin da (2019an protokoloa landu zenean) eta berriz egin behar da (udaltzainen langilegoan aldaketak, protokoloa egokitu beharra)
4.3.2. Indarkeria matxista kasuen aurrean jarduteko barne-koordinazioa nola egingo den zehazteko barne-protokoloa landu parte hartu behar duten pertsona guztiekin.	Erdizka egin da	Egin zen baina pertsona asko berriak eta berriz egin behar da
4.3.3. Indarkeria matxista kasuen aurrean jarduteko protokoloari segimendua egin eta denbora-tarte bat pasatakoan egiten ari garen lana ebaluatu eta beharrezkoa balitz hobekuntza proposamenak egin.	Ez da egin	
4.3.4. Larrialdi kasuetarako eraso matxisten aurrean erantzuteko koordinazio mahaia sortzea alor ezberdinetako profesionalak osatua.	Ez da egin	Ez da egoera eman

4.3.5. Udal barrurako sexu jazarpen eta sexuagatiko jazarpen protokoloa landu, onartu eta ezagutzera eman.

Ez da egin